

Zaraitzuera aztertzeko ekarpen berriak (2 - Eaurta: jarraipena)

KOLDO ARTOLA*

Eaurtako euskarari eskaintzen ari gatzazkion lan honen lehenengo zatian Emodu indikatiboko *nor* eta *nor-nori* sailetakoa adizkiak ikusi eta, neurri batean, aztertu diren moduan, bigarren honetan *nor-nork* modukoekin jarraituko dugu, ondoren etorriko den hirugarrenean *nor-nori-nork* gisakoekin bukatzeko, era honetan modu indikatibo osoa, orain arte egiten ari garen bezalaxe, azterturik uzten saiatuko gara.

Taula 3

Aditz laguntzaile iragankorra (*nor-nork* - 'nik... hura'): 3-01 - 3-20, orainaldiko singularra; 3-21 - 3-40, iraganaldiko singularra.

| adizki -zenbakia | eredua eusk. batuan | Eaurta 1872 | Eaurta 1989-93 |
|---------------------|------------------------|----------------|-------------------|
| 3-01 | dur | dur | dur |
| 3-02 | tok. alok | diat | diat |
| 3-03 | nok. alok | nat | nat |
| 3-04 a | zuk. alok | zut | |
| 3-04 b | xuk. alok | | xut |
| 3-05 a | duzu | zu | |
| 3-05 b | id. (xuka) | | xu |
| 3-06 | duk | duk | duk |
| 3-07 | dun | dun | dun |
| 3-08 | du | du | du |
| 3-09 | tok. alok | dik | dik |
| 3-10 | nok. alok | din | din |
| 3-11 a | zuk. alok | zu | |
| 3-11 b | xuk. alok | | dixu, xu |
| 3-12 | dugu | dugu | dugu |
| 3-13 | tok. alok | diagu | diaguk |
| 3-14 | nok. alok | nagun | nagun |
| 3-15 a | zuk. alok | zugu | |
| 3-15 b | xuk. alok | | xugu |
| 3-16 | duzue | zie | zie |
| 3-17 | dute | die | die, dute |
| 3-18 | tok. alok | die | diek |
| 3-19 | nok. alok | ne | dien, ne |
| 3-20 a | zuk. alok | zie | |
| 3-20 b | xuk. alok | | xie, xe |

| adizki -zenbakia | eredua eusk. batuan | Eaurta 1872 | Eaurta 1989-93 |
|---------------------|------------------------|----------------|--------------------|
| 3-21 | nuen | nuen | nuen |
| 3-22 | tok. alok | nikan | nikan |
| 3-23 | nok. alok | ninan | ninan |
| 3-24 a | zuk. alok | nizun | |
| 3-24 b | xuk. alok | | nixun |
| 3-25 a | zenuen | zinuen | |
| 3-25 b | id. (xuka) | | xinuen |
| 3-26 | huen | uen | iuen, yuen |
| 3-27 | huen | uen | iuen, yuen |
| 3-28 | zuen | zuen | zuen |
| 3-29 | tok. alok | zikan | zikan |
| 3-30 | nok. alok | zinan | zinan |
| 3-31 a | zuk. alok | zizun | |
| 3-31 b | xuk. alok | | zixun |
| 3-32 | genuen | ginuen | gin(d)uen, gintzan |
| 3-33 | tok. alok | ginikan | ginikan, ginian |
| 3-34 | nok. alok | gininan | gininan |
| 3-35 a | zuk. alok | ginizun | |
| 3-35 b | xuk. alok | | ginixun, gintzaxun |
| 3-36 | zenuten | zinien | zinien |
| 3-37 | zuten | zien | zien, zuten |
| 3-38 | tok. alok | ziekan | ziekan |
| 3-39 | nok. alok | zienen | zienen |
| 3-40 a | zuk. alok | zizien | |
| 3-40 b | xuk. alok | | zixien, zixen |

* Donostiako ARANZADI Zientzi Elkarteko Etnografi Sailekoa.

Esker biziak eman nahi dizkiot, arazo gehienbat gramatikalak direla-eta, laguntzaile izan dudana Xabier semeari, Euskal Filologian lizentziatua.

adizki-zk.adibideak

3-01

CK: ta ník dút [abizen] Krutxága

CK: ník pádreñeñstorá... erzátzen dút, abemariará ta sántamariará ere báí...

CK: urté aniz dút... laurógeita [ama]láur úrte...

(inoiz aipatu arazoaren aurrean gaude oraingoan ere, baina aldi honetan Carmelok, *urte anitz* hori multzo bezala harturik nonbait, ez zuen adizkia pluralizatu; ikus 2-01 zk.ko galderari eman erantzuna)

CK: èrran dút?

(galderak egitean aditz laguntzaileari -edo trinkoari, bere kasuan erantsi ohi zaion *-a* galdetzailea ez bide da nahitaezkoa; hots, 3-12 zk.ko adibideen artean Carmelo honek berak emaniko *bukàtu dugú?* gisako bat ikus daiteke, informatzaile berberak, 3-46 zk.koan, *xan tuká sagárrak?* emanik ere)

SK: kóntatzen dút

JK: kor... dút bérze... seméa

(Javier Krutxaga dugu, agian, informatzaileen artean *-ea* hiatoa diptongatu gabe gehienik erabili ohi zuena, *lánean, énea* eta *kótxea*, hala nola *séméa/seméa/seméak* moduko emaitzak eman baitzuten aldiero, nahiz ere *séméari, kótxéa* eta *étsëan* moduko hitz erdi diptongatuak erabili, azentua lekuz aldaturik egotearen ondorio, antza; aldiz, 3-12 zk.ko esaldietan, *txukandria* moduko adibide bitxia dugu, non, hitz mugatuaren bukaera diptongatu ondoren, diptongoa bera, azentuaren bidez, hautsita ageri zaigun)

PA: bai, gáu batez... egín dut kétan eré

SK: oáñik bísta dūt óngi

JK: kór... dúd bérze... séméa

(salbuespenez bada ere, honela ahoskatu aditu uste dugun aditz laguntzaile honek behialako Bidankozekoa oroitarazi digu¹)

SK: pues dúr láurogèit'amábi urte

(multzo bat bezala emanik, antza; *dur* honek, berriz, Uztarrozen eta Izaban behin-berrero adituriko era oroitarazten digu, zaraitzueraren baitan albuespena bada ere, honen aurreko adibidea aditzera ematean esan bezala)

JK: Iruñéan, Iruñean bádut... seméa, kasátrik!

CK: ah, uskárax... uskárara éztut... er...-(e)zatzén

SK: eztút sufrítzen déus eta xáteko gána ón, baia...

SK: eztú'bérze pénarik

JK: ta éztut gèiagokorík

PA: níek (!) eztút, kállesík, aítú, xárdokitzén úskara

CK: niók béterik xan baitút ánitz

(niok hau 'nago' aditz trinkoaren tokako alokutiboa da, 3-12 eta 3-17 zk.ko esaldietan ditugun *giaudek* eta *diaudek* moduko adizkiak diren bezala. Javierak, bere aldetik, xukako alokutiboa erabiliz, *nioxu, giaudetxu* eta *diaudetxu* gisako erak erabili ohi zituen, geroxeago ikusiko denez)

¹ Igariko dotrinan, dena den, *ceren beguinbaitud aniz becatu, pensamenduz, hitez, obrax, eta deseyuz* (57. or.) irakur daiteke, baina agian kontuan hartu beharko litzateke herri hau dela, Zaraitzukoetan, Bidankozetik hurbilen dagoena, nahiz, Otsagin ere haatik, bukaera bereko adizki batzuk aditu ditugun.

- JU: ník etx... ez baitút entendátzen...
(Javiera, hasiera batean, *etxut* esatera zihoala pentsa daiteke; haatik, kausa-menderagailua sartu behar izatean, nonbait, esan beharrekoa egokiro zuzendu zuen)
- CK: ta zénbai'xítén da... aitzéagatík nóla xardókitzeuntan
(hona, ustezko egoera egokian, sandhia gauzatzen ez den beste kasu garbia, 'zenbaitxiten' aditu beharko ote zen pentsa baitaiteke, agian)
- CK: eta zémait... xoixtén da ikústra, yá zé iteuntán
(‘egiten’ moduko era osoak ongi samar mantendu badira ere, *iten* eta antzeko era laburtuak maiz aurkitzen ditugu; azken bi adibideotan, gainera, aditza –kasu batean osorik, laburturik bestean– bere laguntzailearekin uztarturik agertzen zaigu, metatesia gauzatuz. Era hone-tako elkarketa ezagunak Artzibarko herri batean –Arrieta– eta Auritz aldean, Erroibar, Esteribar eta Anue ibarretako zenbait herritan, eta are Odietako herrixkaren batean –Latasan, gutxienez– bildurik gau-de², Iparraldeko zenbait lekutan, orobat, adi badaitezke ere)
- CK: ník xan tána ziókán oník
- PA: yá nai tanéz orínatu, ta báietz
(azken bi adibideotako *tana* eta *tanez* hauek ‘dutana’ eta ‘du-tanez’ baizik ez dira, adizki batzuei zerbait eranstean –dela menderagailuren bat, dela *-a* galdetzailea...–, haien lehen si-laba maiz galdurik geratzen denez³. Ezer erantsi gabeko adiz-ki batzuetan ere, alabaina, haien lehenengo silaba ‘ezkutatu-rik’ aurkituko dugu)
- JU: kóri báí erráitaút
(gisa honetako era laburtuak Zaraitzun nekez aditzen direnez hona-ko hau salbuespentzat jo daiteke, lurralde hauetatik kanpo –Anue, Odieta eta Txulapain ibarretan, agian bereziki, Iruñearen ipar-men-debaldean–, maiz aditu baditugu ere⁴)
- 3-02 CK: útzí díát sagárta erórtzra
- CK: ník bear díát... altxátu kór, zokó kortan; ta xúri, í(r)i...
xégi náí badúk gíbletik
- CK: erósi díát... kuitró bat berrírik, lúrrarén... gultíbatzeko
(hona, *cuitro* hitz horixe dela eta, Iribarrenek dioena: “Nombre que dan en Lumbier y Ochagavía al arado llamado *cutre*. En el Fuero General de Navarra, *cuytre*. Y bueyes *acuytrados* a los que arrastran el *cuytre*”. Galdetua izanik ea *kuitro* hori ‘golde’ izeneko lanabesa baino lu-zeagoa den, *luziágo ez, kán nonbait* erantzun zuen Carmelok)
- PA: xán díát ógia
- SK: inférnuála... éz díat beár, purgátorioála bai
(aditza –*fán* kasu honetan– azpiulerturik egotea interesgarria izan daiteke, behar bada; *infernu* hitzari gagozkiola, bestalde, Samp(dotr)ek *ifernu* zerabilen⁵)

² Arrietako herriari dagokionez, *erràteunté, inéunt* eta *garbítzéunt* gisako adibideak ageri dira gu-re Hegoaldeko goi-nafarrenaren... (210 or.). Halaber eta orokorki, Pedro de Yrizarren *Morfología del verbo auxiliar alto navarro meridional* eta *septentrional* izeneko lanetan, bai-eta *EAEL-II* delakoaren zen-bait etnotestutan ere, hainbat adibide ikus daiteke.

³ Samp(eban) apaizak ere hala: *Eguian erratendauciet orañic Ysraelen erdian ez tala [= ez (du)tala] erden fede cain andia* (8-10). Samp(dotr) delakoan, aldiz, *eguindutala* (51) eta *pesáredutala* (56) modu-ko era osoak irakur daitezke.

⁴ Gure *Olaizko euskal eskuizkribuak* izenburuko lanean (513 or.), adibidez, era horretako adibide batzuk ikus daitezke.

⁵ Mitxelenak prestatu *Un vocabulario aezcoano...* delakoan ere *ifernu* dugu –aezkeraz *infernu*–, eta Satrustegiren lanetan, batean *infernu* (*Euskal testu zaharrak*), eta bestean (*Zaraitzuko euskararen...*) *ifernu*. Zalanta dugu, beraz, nagusi.

- 3-03 CK: ník fan bar nát Iruñara
(*bar* eta *bear*, biak adi daitezke Eaurtan hainbat adibidetan ikusiko denez, Erronkari aldean ere aldaera bikoitz hau bildurik gaudela⁶)
- PA: xán nát ógia
- 3-04 a JU: eztízut nóla déitzen zen: ... garagárra!
(*eztizut oritzen* izan liteke hori, agian, aditza azpiulertuta, non *eztiakizut* laburbildu bat ez den –‘ez dakit’ + zukako alokutiboa, alegia–)
- JU: etzút áitu, ez...⁷
- 3-04 b JU: repétitzeixut gáuzá anítz; óngi`do gàizkí...
JU: xardòkitzeixút gizón karekin
(azken bi adibide hauek *-tzen* + *d*-tik batzuetan gauzatu ohi diren lotura murriztaileak zenbaterainokoak izan daitezkeen argiro erakusten dute)
- SK: kóntatzen xút
- SK: xán xút ságar
- JU: Espínalen erràen xút baia...
(azken hiru adibideotan argiro ikusten da zaraitzueraz, are egoera egokian ere, nolako erresistentzia dagoen sandhiak gauzatzeko, horren zioa, behar bada, singularreko emaitzak pluralekoetatik ongi nabarmendu nahi izatean egon litekeela; hau dela eta Salvadorren ahotik bildu adibide pare bat aiputuko dugu 3-05-b eta 3-45-b zk.ko adibideetan, joera honen erakusgarri)
- JU: ník kála... izáundu xút
(‘ezagutu’ da hori, jakina; Uztarrozen eta Izaban *izaguntú*⁸)
- JU: alába bat baxút... Espínalen
- JK: ník etxút, áit(t)u... óla, xardókitzen; en Roncal...
- JU: géro ník léi, etxút ja enténdatzen
(ikus, 1-35 zk.ko erantzunetan, *karria* hitzari buruz egin iruzkina)
- JU: etxút ikúsi almadíatzen; almadíarà... kuajátrik bai, baia...
por fuerzas ikúst (sic), ez
- JU: ezín éb(i)li, etxút... já iten eta... ez apál saunsten
(*ja* hori, beste zenbait esalditan ageri *deus* edota *batre/batre* hitzen sinonimotzat har daiteke, aurrenik, ohiki, *ez* ukazioa duela; *saunsten* hitzari dagokionez, badugu, orobat, tarteko sudurkari hori agerian geratzen den Javierak emaniko beste adibideren bat: *dantzá ta... etxékuandrék libósnaara saúnts apal (...)* *límosnára saúnts*⁹, *èrmatrá, kantátzen zenían...* kasu)
- 3-05 a CK: ta zúk zér bízia ermàten duzú?
CK: Irátiko oianá, aitzéá bear duzú?
JU: ta nóla? zér nauzú?

⁶ Izaban, adibidez, *ník zér bar dior érran?* eta *xoán biár... bere lánia* moduko esaldiak bildu ginituen aspaldi (FLV 25), eta Uztarrozen ere *erórtan bálín badá, pues azkátu bar diagún* zein eta *méndiala xóán biár!* (FLV 85).

⁷ Samperrek Bonaparteri eginiko gutunean *Izanzut, Jauna, itzez manifestaetroquetan gozoa*, alde batetik, eta *nic seguizenzut óngi nore osasunean* moduko adibideak ageri dira, aditzaren lehen silaba galduta, lehenago ohar batean aditzera eman bezala (N. Alzola: *Una carta de D. Pedro José Samper...*).

⁸ Samp(eban)ek *izautu* zein *izaundu* zerabilen: *Baya ihorc etzu izauten Semea...* (11-27) eta *ceren zuer emanbaitzaicie privilegioa izauteco...* (13-11), alde batetik, eta baita *Eta izaunducielaric can bicizrenec...* (14-35) edota *eta eztrozquetcia izaun...*? (16-4), bestetik.

⁹ *Sauntsi* aditza baino egokiagoa litzateke, kasu honetan, *erauntsi* –edo *erauntsi*, Carmelok 3-17 zk.ko esaldietako batean erabilia–; hots, ‘jaitsi, behehitu, beheratu’ (zerbait).

- (*nauzu* hori ‘nahi duzu’ da, agi denez, Zaraitzutik kanpo ere oso za-
balduriko laburbilketa)
- 3-05 b JK: *nai dúxu xardóki arékin?*
(bera bezala Ilunberriko Egoitzan zegoen eta lehendik aipatua zuen
andre bat ikusi nahi ote genuen galdetu zigun Javierrek, *arekin* ho-
ri gaztelerazko ‘con ella’ dela¹⁰)
- SK: *xúk eré xán xu*
(lehenxeago aipatu arazoa: Salvadorrek, erantzun honetan sandhi
bat gauzatzeari uko eginez, honen pluralerako *xúk xán txu guziák*
–3-45-b zk.ko erantzuna– eman zuen, nahiz ohiko euskal fonolo-
giari jarraiki, bi kasuoetatik lehenengoan ere *txu* moduko emaitza
igurikatu beharko zen¹¹)
- JU: *báita, arrázio xú*
(erdaratik etorri hitz askoren *-on* bukaera, euskararen eremurik
gehienetan *-oi* bihurturik ikusi ohi duguna, *-io* da zaraitzueraz: *arra-
zio, montio...*)¹²
- JU: *ikusí xu xú(k)?*
(hots, lehenago esan bezala, galderak egitean aditz laguntzaileari
erantsi ohi zaion *-a* galdetzailea ez da beti erabiltzen)
- JU: *eta... zúk, lastérkatu xú? Ronkála ta... Salazára ta gúzia...
kóntan? uskéran?*
(esaldi honetan *zu* eta *xu* nahasirik daude, lehenagoko besteren ba-
tean ikusi bezala)
- JU: *zér nai xu xákin? almútia xú gáuza txikín bat*
(Azkuek zera dio: **almute** (BN-s), almud, medio celemín: *almud, la
moitié d’une mesure pour les grains, usitée en Espagne* (2 lit. 312). Iri-
barren, baina, ez dator harekin bat lanabes hori definitzean ez-eta,
ondorioz, horren edukiera zehaztean ere, honela baitio: **almud** (del
árabe *almudd*: medida). Medida de capacidad para áridos equiva-
lente a un dieciseisavo del robo, o sea, a 1,76 litros. Suelen llamarlo
*almute*¹³)
- JU: *ta xúk e...-txú ikùsi kóri*
- JU: *gizón bát ikùsten baxú, ta balinbaxáude ‘de tú’, náugi,
ta... baxáude ‘de usted’, txáuri*
- JU: *xúk eré eiteixú xú*

¹⁰ Bidezkoa deritzogu Bonaparteren jarraiko oharra hona ekartzeari (*Études...* 21, 6) : “que le pro-
nom *ura* ‘il’ (*ari* ‘à lui’), qui n’est jamais un adjectif démonstratif en aezcoan, en salazarais, en ronca-
lais et en haut-navarrais méridional propre, contrairement à ce qui arrive en toute outre espèce de bas-
que, ne doit pas être confondu avec *kura, kari*, salaz. et ronc.; *gura, gari*, aezc. et nav. mér., qui signi-
fient *ce, à ce, ce-là, à ce-là; cela, à cela; celui-là, à celui-là*”.

¹¹ Samp(eban) ez bide zen gehiegi kezkatu ustezko bereizketa horiek egin behar (ala egin behar
ez) izateaz, bere itzulpenean zorioneko sandhi-kasuak aurkitu ohi baitira gauzaturik balizko baterako-
tasunei men egin gabe; hots, *Etzu* [*< ez tzu < ez ditzu < ez dituzu = ‘ez dira’ sano daudenac*, ‘no son
los que están sanos’ (9-12) idatzi baldin bazuen ere, jarraiko adibidea modu berean izkribatu baitzuen:
beinere etzu [*< ez zu < ez duzu = ‘ez da’ icusi calaco gauzaric*, ‘Jamás se ha visto cosa semejante’ (9-33).
Samp(dotr) delakoan, baina, *Ditzu* [= ‘dira’] *aren misterio principalenak* idatzi zuen (11), eta baita *Zaz-
pi vicio cuen contra baitzu* [= ‘badira’] *zazpi virtute* (45), baina baita, era berean, *fatentzu* [= ‘faten di-
ra’] *ceruala* (50) ere.

¹² Eaurtan, halaber, *arratio* bildu dugu –gazt. ‘rata’, eta ez ‘ratón’–; Ezkarozen eta Espartzan, *arra-
tu*.

¹³ Julio Rubio Lópezek, *Guía de Navarra* izenburuko liburuan, almud batek 1,75 litroko edukie-
ra duela dio, Iribarrenek emandakoarekin bateratsu. Gure egunotara iritsi diren garai bateko neurkera
hauek, dena den, asko aldatzen ziren leku batzuetatik besteetara; ez du, beraz, Azkuek esanikoa harri-
tu behar.

- JU: ta zér artzeixú, zínta?
(batzuetan era hauetako laburbilketak adi daitezke; ikus, esaterako, 3-04-b zenbakiko bi adibide ere)
- JU: erégitéko erràten xuá?
(*eregin* hau 'erein' da, noski. Uztarrozen, duela zenbait urte, Fidela Bernatek *erin* eman zigun eta Doroteo de Miguelek *azikatu*)
- JU: se conoce que eskribitzen duéla xúk iten xuéna bezála
(*xuena* hau singularreko hirugarren pertsonan izan ohi dugun *duena* batetiko bukaera-kidetasunari zor dakioke, agian; ez da, dena den, horrela gauzatzen beti)
- 3-06 CK: xégi náí badúk gíbletik
SK: oráí erràten bádía(d)é: 'kóño, pues bar dúk bizi izán... egún urtiétan'... mékaguen! disgústó bat
PA: fan bear ká Igárirá?
CK: ík xan kána báita're
- 3-07 CK: ík eròsi dún ógia
CK: ík egin dún
PA: úrte aniz dún
PA: fan bear ná Igárirá?
- 3-08 CK: ya... urté anitz igarí du
CK: eúriak egin dú aníz gáizki
(Azkue-hízt.: **Gaizki** : 1º (AN, BN, G, L, S), mal, malamente, *mal* (*adverbe*)¹⁴)
CK: bai-bai-bai-bai, zelébratzen dú oáñik misára, bai-bai
CK: Arbúrúa, Arbúrúala; dagó... kantéra batián, góiti kantéra batián, ta kándik, egúneró, sonátzen du... esklára, egórdi-múgara (...) Itzálleko... terrénuan
(mugaturik eta laburbildurik ageri den *esklára* hori gaztelerazko 'la campana' da, noski, esaldian ageri den *egordi* hori Otsagin ere, eta are Uztarrozen, bildurik gaudela¹⁵. Javierak, ordea, *eguardi* eta *eguerdi* erak zerabiltzan)
CK: pues fân bear dú... Doméñorártio
(muga-adlatiboan *-rartio* gisako bukaerak ohikoak dira Zaraitzun, *-raíno* modukoak gutxitan aditzen direla¹⁶)
SK: xán dú apézak
JK: almadíak beár du... úra... izán iguál
PA: bát bizi dá kán, etséa erosí du
JU: *xúka*... ére xardòkitzén du?
CK: bádú... úrran bí urte
(*urran* hau 'hurbil' en sinonimoa bada ere, kasu honetan, eremu semantikoa kontuan harturik, gaztelerazko 'casi' adierazteko orobat balio dezakeela iruditzen zaigu, nahiz Carmelok berak, honetarako,

¹⁴ Bonapartek, 1867. urtean, Eaurtako euskaraz soilik argitaratu emaniko *El Salmo quincuagésimo...* delakoan ere molde beretsuko adibidea dugu: *éta eguin-zut gáizquia zúre altzinean*, 'y he hecho el mal delante de tí'. Handik bi urtetara printzeak testu bera argitaratu zuen Eaurta bereko, Aribeko eta Bidankozeko mintzamoldeetara itzulita, baina azentu-markak seinlatu gabe. Argitalpen berri honetako Eaurtako itzulpena zertxobait ukiturik edo zuzendurik ageri zen.

¹⁵ Zoilo Moso otsagiarrak ere *egordikoan* erabili zuen José Estornés Lasari bidali 8. gutunean (*Zoiloren uzta...*), eta *Un vocabulario...* delakoan, halaber, *egordi* ageri da zaraitzueraz.

¹⁶ Erronkari aldean, aldiz, bestelako muga-adlatiboak ditugu: *Izábaradráino*, *Zaragózaradráino*, *Tortósaradráino...*, *-draíno* hau Uztarrozekoa izanik, Izaban *-dreino* baitzuten.

- kuasi* erabili zuen behin baino gehiagotan, Pablok, artean, *kasi* eta *abantxu* hitz pareta erabili zuela)
- CK: baia órai, sémëak, eztú entenditzén batre órre(k); enténditzen dú guziá baia eztú xardokítzen
(Carmelok, *xardoki* honen sinonimotzat, *elekatu* hitza erabili zuen behin edo behin)
- CK: pues Eskárózen, euskárara, eztú iórk eré xardokitzén, baia enténdatzen duté guziék
(*enténdatzen* hitz mailegatua erabili zuen esaldi honetan Carmelok –Javierak ere erabili ohi zuena, bestalde–; *enténditzen*, honen aurrekoan)
- JK: kórrek eztú nai... soltéro
(‘egon’ edo ‘jarraitu’ edo beste hitzen bat azpiulertuta dugu hemen, antza denez)
- SK: pues euría eíten badú pues... bùstíta
(partizipio burutueta *-ta* gisako bukaerak *-rik* modukoak baino aldi gutxiagotan agertzen zaizkigun arren, inoiz edo behin ere aditzen dira¹⁷)
- CK: diók béterik xan baitú ánitx
CK: aíták xan duén sagarra yuén onik
CK: ta nai duénak ofrezítu...
JK: órai, arék, ein zála nai duén(a)
PA: éz organísta... sonátzen duéna; étsia [Organista izenekoa, alegia]
JU: erràten duénak bída
CK: ta lóteák, paràtzen duzté... gióyago emáten duénarendako
(‘gehiago’ hitza, Zaraitzun, gehienetan *yago* edo *diago* gisan aditzen bada ere, Carmelok, aldi honetan, halakoxe nahasmena darakusan *gioyago* bitxi hori ahoskatu zuen¹⁸)
- CK: korí, gendú da, orái duéla... urté gútti
(*t*-ren bustidura garbia dugu adibide honetako azken hitzean eta baita hitz bera azaltzen zaigun beste kasuren batean ere, xumegarri bat eratzeko ezberrik gabe, *goitixeagotto* moduko hitzean bezala –azken honetan, gainera, bi eratako xumegarriak ditugu–, halakoak urri samarrak badira ere: *polit(t)a* –hau baino arruntagoa *pol(l)ita* baita–, *mittikara* hitz mugatua [*mittika bat* = pixka bat] edota *tton-tto* [gazt. ‘sentarse’; haur-hitza], adibidez, *guti* hitzaren beraren xumegarria, batzuetan, ‘guti’ gabe, *guti-guti* edota *gutiño* izanik)
- SK: oái duéla aspáldi asi nitzán
JU: òrai duéla... bízpur il(l)ábeta
CK: ikùsi duá?
(aldi honetan, zergatik ez dakigula, *dukek*-eko tratamendua eman zigun Carmelok)
- 3-09 CK: beórrak sórtu dík... potró bat
CK: axúri bát sórtu dík ardíak
(Nafarroako oso eremu luze-zabaletan, ibar hau ere barne, gaztele-razko ‘ha parido’ esateko ‘erdi da’ moduko aditza erabiltzen den

¹⁷ Samp(eban)ek ere inoiz erabili zuen: *predicazacie etsagañetaric asita*, ‘predicadlo desde los terrados’ (10-27), eta baita Federiko Garralda otsagiarrak behin edo behin: *txerria ilta / zubia igareta / xakinta*... moduko adibideetan, gutxienez (*Euskal Esnalea*, 1915-25).

¹⁸ Dena den adberbio horren beste zenbait aldaera entzun edo irakur daiteke noiznahi: *geyago*, *geago*, *deago*, *diago*... gutxienez.

- arren –era iragangaitzean, beraz–, Zaraitzun eta Erronkarin ‘sortu du’ gisako era iragankorra orobat izan dezakegu¹⁹)
- 3-10 CK: *eztík ténbra ánitx...*
- 3-11 b CK: *áitak eré erósi dín*
- PA: *ez ikústén... díxu, ník bezála*
(Pablok esaldi bitxi hau eman zuen bera zegoen Egoitza bereko andere baten osasun-egoeratik ‘eta zer du?’ gisako gure galderari erantzunez)
- SK: *apézak xán xu*
(adizki bera errepikaturik aurkitzen dugu hainbat aldiz, subjektua pertsona desberdina izanik ere; honela gertatzen da, adibidez, Salvadorrek lehen emaniko *xúk ere xán xu* [= ‘xuk ere xan duxu’] eta oraingo *apézak xán xu* honekin [= ‘apezak xan dixu’], adizkien lehen silaba galdu izanaren ondorio)
- JU: *Konpañía... baték eráutzen xú bazkária*
(3-75-b zk.ko adibideetarik batean *erotzen* dugu, *au* diptongoak *o* bihurtzeko duen joera ezagunaren erakusgarri, bata zein bestea *eragu* [= ekarri] aditzetik eratorriak)
- JU: *ta akúditzén xú mezára, jéndiak, èta... báitagó... goitíxe-agóttö erría beño*
(‘akuditu’ aditza, bitxi bada ere, iragankortzat jo bide zuen Javierak, 3-31-b zenbakiko adibideetan ere *norbaitek akuditzén zixun* aurkitzen dugunez)
- JU: *séme bát (...) bát baxú... fútbolian*
- JU: *eta... géro, eskribitzéinxu*
(3-01 zk.ko esaldiren batean ikusi ahal izan den moduan, adibide honetan ere aditza bere laguntzailearekin uztarturik agertzen zaigu, metatesia gauzatuz²⁰)
- 3-12 JU: *kórrek etxúxu [= ez dixu?...] báitzik ere tárdie, táurdi(e)²¹*
- CK: *ta kála igártzen dugú... ténbrará!*
- CK: *bukàtu dugú?*
- SK: *gúk ere xán dugú*
- JK: *au dúgu etséko...txukandría*
(*txukandría* honetan nabaritzen den aferesiaz landara, *txe > txo > txu* gisako joera agerian dela iruditzen zaigu; Otsagin, edozein kasutan, *etxúkándrëa* bildurik gaude eta Espartzan *etsékoándria*)
- PA: *ah! gúk ére... erratén dugu ánitx é, ánitx*
- CK: *ta mòndóngöa... xàten degú kémen*
(adizki hau, inguru honetan zinez bakana, inoiz edo behin adi daiteke, Izaban ere, duela hogeita bost bat urte, hitzez eta idatziz bildurik gaudela²²)

¹⁹ Espartzan, adibidez, *érdi da* bildu genuen aspaldi eta Uztarrozen *sórtu dién* ‘ha parido’ (EAEL-II, 370 zk.ko galdera). Txulapain ibarreko Esteban Garbisu beorburutarrak honako bereizketa egiten zuen: *érdi de zerríe*, alde batetik, eta *librétu dé makómia*, bestetik, biak iragangaitzean halere, bietarik aurrenekoa emakumezkoekin lotzea itsusi eta zakartzat zuela.

²⁰ Era honetako metatesiak gutxitan ageri dira gure materialetan, XIX. mendean Samp(eban)ek maiz erabili bazituen ere, *predicatzéintzu* moduko kasuan, adibidez [*<* predikatzen dizu = ‘predikatzen du’]. Antzeko kasuak ditugu *sortréintzu* [*<* sortren dizu = ‘sortuko du’], *itzulcéintzu* [*<* itzultzen ditzu < dituzu = ‘itzultzen dira’] edota *eguinéinzut* [*<* eguinen dizut = ‘eginen dut’] moduko adibideak, esaterako.

²¹ *Táurdie* hitz honekin (= ‘zatozte, etor zaitezte’) antza duke José María Satrustegiren *Zaraitzuko euskararen lekukoak* izenburuko lanean ageri den *zaurdie* modukoak, *Ez por cierto, equivocatric zaurdie* gisako esaldian ageri denak; bi gauza desberdin dira, ordea, antza denez.

²² Antonia Anaut andere izabarrak behin baino gehiagotan erabili zuen adizki hori gure *Erronkari-riko uskararen...* izenburuko lanean ikus daitekeenez, are hark berak idatzi *Christma* batean ere.

- JK: guk, eztúgu... bėti... bezté manèratán, xardòkitzen éz
 CK: giàudek béterik xan baitugú ánitx
 JU: dugun alegriara
 (lan honen lehenengo zatian aipatu Eguberritako kantutik aterata)
- 3-13 CK: xan dugúna
 CK: aizátu bar diágúk, llàrrenián, éultzia!
 (llarrena eta *eultzia* gaztelerazko 'la era' eta 'la parva' dira, hurrenez hurren)
 PA: fán bar diáguk
 PA: izaén diauk
 SK: eta géro yá, kàn bar díáu
 (adizkia *-k* bukaerarik gabea eman zuen Salvadorrek, Carmelok eta Pablok ez bezala, baina XIX. mendean bildu eta koadroetan ageri den *diagu*-ren antzera²³)
- 3-14 CK: gúk eré erósi nagún ógia
 PA: ez naún izaén áurrik
- 3-15 b SK: gúk erósi xúgu étxea
- 3-16 JK: nóla erráten duzié?
 CK: xan zió / xáten zió sagár anítz
 PA: zék eré fan bár zie
 (Pablok *zek* erabiltzen zuen beti, honetan Aezkoa aldera joz, era hauxe baita, izan ere, ibar honetako zenbait herritan bildu duguna)
- JU: así que, txókatzen zidaxú zúek... entendátren zienéz uskéra
 (Javierak, ordea, *zuek* erabili ohi zuen, esaldi honetan ikus daitekeenez)
- 3-17 CK: ermáten dié
 CK: óñez, óñez edo... ábrëan, erratén baitiè
 (Carmelok, *erraten baitiè* horrekin, 'deritzotena', 'deitzen dutena', 'esaten zaiona' edo... esan nahi zuela iruditzen zaigu, 1-07 zk.ko adibide batean hark berak emaniko *labea deitzen baita* esaldia edota geroago ageriko diren *erraten baitakoe Ripalda* eta *erraten baizakoen ariara* moduko esaldiak ere antzeko egoeran direla; beste zenbait informatzailek ere, gainera, gisa bereko moldeak erabili zituzten)
- CK: diáudek béterik xan báitie ánitx
 SK: moztén [*ilea* edo artilea, ardiei] eta, dirú unkítzen baitie
 (Azkuek, **Hunkitu** hitzaz, zera dio bere hiztegian: 2º (BN, Sal., S), recibir, *recevoir*. Ikus, hala eta guztiz, 1-07 zk.ko esaldi bati 'onkitu' hitzaz egin diogun iruzkina)
- JU: ...erósi báitie étxea
 (Carmelok *die* honekin batera *dute* ere maiz ematen zuela ikusiz, Javierari galdetu genion: 'eta *dute?*', honek adizki hauxe eaurtarra ez dela erantzunez)
- JU: eta... nài dielá... *xí*, porque baitá... uskéra suábea, suàbeagó èzik... ber(t)zé koek
- CK: Zaàitzükó, Zaáitzu Bállëan, daudé... amazápi érri, ta kóek... duté derétxo, Irátiko oiánian
- CK: urtiéro... iltzén duté tzérria, ta erósten duté Eáurtan, ta móndongöa... egíten duté Eskározen, senárremáztiek
 (*-ero* bukaera dugu *urtiéro* horretan, diptongazioa eta guzti, 3-08 zk.ko esaldi batean Carmelok berak *egúnoró* eman bazuen ere. Hor-

²³ Satrustegiren *Euskal testu zaharrak* delakoan, halaber, era hauxe dugu: *casamentu cau beardiagu equin* (162).

tik landara, *tzerria* hitzaren hasieran ageri den mingainurreko ahoskabea *tzauri*, *tzintzerriak* eta *tzintzurretik* gisako hitzetan ere aurkitu dugu, eta are *Tzaragotza*, *tzomait* eta *tzopa* [gazt. 'sopa'] modukoetan –hauek bokal banaren ondoren doazela gainera!–, era honetako ebakera Nafarroako leku askotara zabaltzen dela, are Iruñetik mendebaldera ere²⁴)

CK: ta abísatzen duté, zér egúnez bear dutén f(u)an

CK: koék xán dutè

(guk egin galderari emaniko erantzuna dugu hauxe –Carmelok *die* eta *dute*, azken hau gehiago, erabiltzen zuela ikusirik–, honela galdetu geniola: 'koek xan dute' ala 'koek xan die?; gainerako adibideetan ikusiko denez, alabaina, Carmelok bata zein bestea erabili ohi zuen)

CK: ta kán íltzen duté [düté?], ta eráusten duté, il(l)ík, Eskáro-zera

(‘zerbait jaitsi, beheratu edo behehitu’ izatera datorren *erautsi* horretarako *eritsi* eta *erexi* bildurik gaude Uztarrozen)

CK: ániz gáuza ermáten dú... ermáten düté... bendézi ztén, bendé... bendé zkizién! San Blás egúnëan

(esaldi honetan *bendezi zten* [= benedika zitezen] dugu, lehenik, eta *bende zkizien* bitxi bat ondoren [= benedika ditzazuen], non, txarrean ere, ‘benedika zkien’ –gaztelerazko ‘para que los bendijera (el cura)’– hobeki egongo litzatekeen, aditz laguntzaile hauek, beti ere, orainaldian egon beharko luketen arren; geroxeago, 3-28 zk.ko bigarren adibidean hain zuzen, ustez berandu samar sartu beste ‘bendezi’ baten ondoan, itxura zaharragoko *benedikatzén* bat aurkituko dugu)

JK: ta... o Espáñarík o... Fràntxakúak... àrtzen düté bída, bí bei

(Javierren ahoskera honetan, agian bereziki, *düte* horren *ü*-a hurbigoa iruditu zaigu *i* batetik *u* batetik baino)

CK: baiá, orái yá eztúte ikásten

CK: berz'étxetan eztúte o(g)írik e(g)ítten orai

(*o(g)irik* baino gehiago *urik* aditzen ote den gaude, eta *e(g)itten* horretan ageri den bustidura, bestalde, ez da batere ohikoa Zaraitzun)

CK: nòla egín baituté etxéa berriík...

(Carmelok, arestian esan dugun legez, *dute* eta *die*, bi adizkiak erabiltzen zituen kasu honetarako eta aurrenekoa gehiago, gainera, bestea baino. Alabaina, beste behin guk ‘Eaurtan nola gehiago, *ermaten dute* edo *ermaten die?*’ galdetu-eta, erantzuna *ermaten die* izan zen, hautu hau lehenxeagoko iruzkin batean aditzera emanikoarekin kontraesanean geratzen baldin bada ere; informatzailearen zantzak ote, azken batean?)

CK: rekónozitzén te múgará ta... eíten duté egún bat oník

PA: étse saldu ténak... ónik drá

(aldi honetan adjektiboak, aurrea harturik, *dra* adizkia atzera bota du, zaraitzueraren ohiko joeraren aurka, itxura osoan²⁵)

3-18

CK: xan diék

SK: así que erráten diék...

PA: xan diék

²⁴ Adibideren bat emateagatik, Arakilgo Ihabarren eta Urritzolan *tzakurre* aditu dugu eta Txulapaingo Beorburun, *tzakurre* horrez gainera, baita *tzerrie* eta *tzorie* moduko hitzak ere.

²⁵ Esaldi honetan nabarmentzen den joskera bereziaz, bestalde, ikus 3-61 zk.ko esaldietan ageri den antzeko adibide bati egin diogun iruzkin xumea.

- 3-19 CK: anáek eré erósi dién ógia
(pluralerako aldiz -3-59 zk.ko erantzuna- *sáldu tiné* eman zuen Carmelok, eta ez *tien*)
PA: erósi né étxea
(‘eta *erosi diné?*’ - ezetz erantzun zuen Pablok)
- 3-20 b PA: xan xié
JU: emáten xié aperitíbo bát... gázta, ógi eta árdó, ta ú(r)s
JU: orón batez, eràugi xié... bestén... zéra, fésten... prográ-
mara
(*oron* horretan asimilazioa dugu, *odoi* hitzean ere, adibidez, -gázt. ‘nube’ eta ‘trueno’- gauzatzen dena²⁶, honela bildurik baikaude hitz hau Eaurta berean, Ezkarozen eta Espartzan; *ogei* hitza, ordea, dela bakarka dela konposagai gisa, asimilatu gabe agertzen zaigu ia beti zaraitzueraz, 3-61 zk.ko adibideetan *berrogoita zazpi* moduko salbuespena baldin badugu ere. Hauetaz gainera, Bardean ibili izaniko Nicolás Elarre artzain espartarrari, Gabon-kanta bat ematean, *Orientetik Orientalia* bildu genion behin, ‘orienté’ hitza erdal mailgua izan arren²⁷. Lehen aipatu *oron* hitza, dena den, Zaraitzutik kanpo ere aski ezaguna da)
JU: ta... dantzátren xié, los bailes... dántza... típiköák?
ebénköök (...) kéngöök
(aditza singularrean dugu, balizko sandhi batek -baldintza egokiak izanik ere gutxitan gauzatzen dena- pluralizatzeko asmorik eza ezkutan utziko bazuen ere. Esaldiaren bukaera aldeko *ebenköök* eta *kéngöök* hitzen arteko desberdintasuna, bestalde, deigarria iruditzen zaigu; lehenengoaren kasuan, gainera, -ko deklinabide-markaren leherkari gorra ozendu gabe ageri zaigu -1-05-a zk.ko adibide batean ere *nonkôa* moduko hitz bat dugu-, ‘erronkariar erara’, nolabait esateko²⁸)
SK: xán xé aíxkideek, xán xié
JU: emán xe kláse, kében, érrian
(zail da, batzuetan, *xe* edo *xie* ahoskatzen den ongi bereiztea, eta pluralean kasu bera dugu *txe* edo *txie* adizkiekin, hala nola iraganaldiko antzeko kasuetan ere)
- 3-21 CK: ta kán, érrian, elékatzen nuén emáztëarekin... uskárara
CK: áníz basíja; ník, ikási nuén ofíziöa... Zangózan
(*ng* taldeak biziki ongi irau du zaraitzueraz -erronkarieraz ditugun *Erronkari*, *Urzainki* (Izaban *Usteinki*), *Bidankoze*, *Zankozá* eta antzekoen aurka- are herri hauetako bati *Rongari/Errongari* edota Zaraitzutik hegoaldera kokatu Zerrenkano izeneko baserri hutsari *Zerregano* esateraino ere, Orontzeko Severo Azkoiti jaunari aditu bezala)

²⁶ Horrela, behintzat, Mitxelenaren arabera (*Notas fonológicas...* 5), bai-eta hark berak prestatu *Un vocabulario...* delakoan ere (85-88 zk). Ez dirudi, baina, hitz honen esanahi bikiaz informatzaile guztiak erabat ados direnik, Samp(eban)ek, adibidez, gatzelerazko ‘nube’ gisa itzuli baitzuen soilik: *noiz odoi argui bat sinbaizten ayen estaltzra*, ‘cuando una nube resplandeciente vino a cubrirlos’ (17-5) edota *ezic icu-sienciela (...)* *ssiten ceruco odoyen gañan*, ‘que veréis (...) venir sobre las nubes del cielo’ (26-64).

²⁷ Samp(eban)ek, ordea, mailegua bere horretan idatzi zuen: *Ceren guc icusizugu orientean aren izarra* (2-2).

²⁸ Espartzan, dena den, *zánkoa*-gázt. ‘el pie’ (*EAEL* I, 16)- bildu genuen aspaldi, Erronkariko Uztarrozen bezala, eta baita, diogun bidenabar, *ázpia*-gázt. ‘la pierna’ (*EAEL* I, 15)- Uztarrozen bezalaxe berriz ere, Mitxelenak prestatu *Un vocabulario...* delakoan, zaraitzueraz, bi kasuetarako, *zango* moduko hitz bakarra ageri den arren.

- CK: ìten nuén... lítroa, lítro érdia, dekalítroa... ta órai, len, usátzen zén píntara; órai lítroa
- JK: oái xardókitzen, itzègin nuén un poco ník, orrékin, Goyè-narékin
(*itzegin* hori, aditza den aldetik, bakan da Zaraitzun, *itz/litza* [gast. 'la) palabra'] ezaguna bada ere)
- PA: ní'man nuén andík... estállu bát (...), ardí-estalluá, 'el hatajo'
(*man* horren gisako aferesiak ez dira ohiki aditzen zaraitzueraz; eta *estallu* horrekin zerikusia duelakoan, bestalde, hona Iribarrenek dioena: **Estajo**. Hatajo, rebaño pequeño)
- JU: eta dénbóra nóndi'nuen? alorreála fán bear!
- JU: ník ezkíxu(t) nóla ikàsi nuén baia...
(*eztiakixut* izango ote da? hala dirudi behintzat)
- PA: ez nuén, enóken érden
- PA: ník enuén ardirík
(hots, azken bi adibide hauei behatu bat emanaz ondoriozta daitekeenez, Pablok ez zituen beti *z + n* gisako kasuak era berean gauzatzen)
- JU: egún kartan egón nintzaxún trístete, ez bàinaukín, ez bainuén al izán xán; ez bàinaukén... xan
(‘neukan’, ‘nuen’ eta ‘nezakeen’, hirurak ditugu hor, hirugarren era honetarako, XIX. mendean eta Eaurta honetan berean, Bonapartek *noken* bildu bazuen ere²⁹ –Pablok lehenxeagoko esaldi batean eman bezala, bidenabar–; esaldian dugun *ez + al izan* horrek, bestalde, gaur egun herri askotan –Iparraldekoetan, agian, nagusiki– molde horixe *ezin izan* gisakoa ordezkatzuz joateko erakusten ari den lehia nabaria agerian ezarri besterik ez du egiten³⁰)
- CK: kántuz ikási nuelakó
- CK: ikási nu(e)lárík, igàn nintzán... Eáurtàra, ta kán esèri nuén talléra
- 3-22 CK: eròsi níkán étxëa
PA: xán níkán
- 3-23 SK: oái ník nài izan nukán íl, béingöan
CK: eròsi ninán ógi bat
PA: xán ninán
- 3-24 b SK: xan nixún ník
JU: géro senárrarékin ére xardòkitzen nixún ánit; xinuén Abúrreko
JU: ùste nixún séme [zela]
(esaldia bukatu izan balu Javierak ez zukeen, ziurrenik, ‘zela’ esango, ‘zen’ baizik, joera hau argitzeko honen hurrengo adibidea oso esanguratsua dela)
- JU: usté nixún bí kláse zrén, baia...³¹

²⁹ Bonaparte, L.-L.: *Études sur les trois dialectes basques...* (10. or.).

³⁰ Samp(eban)ek ere horrela: *Eta presentatudiabezut bera zure discipuluer eta etzie albizan sendatu* (17-15), edota *¿Daya posible etzinezan albizan vigilatu oron bat enequin?* (26-40), adibidez.

³¹ Dena den, eta honi buruz lehenago ere egin ditugun oharrek eginagatik, Otsagin, esaterako, *uste dut... dela / uste dut... zela / ník uste ... dutala* gisako esamoldeak bildurik gaude, bestelakoak hauek baino askoz ere ohikoagoak izan arren.

- 3-25 b SK: xan xinuén³²
 JU: náí xinuén xakín é(u)ltzia
 JU: ta eskólara baixinuén, eskólara fán, eta...
 (bi *eskolara* desberdin dugu hemen, lehenengoa ‘eskola’ hitz mugatua dela)
- 3-26 CK: ík eré xan iuén bát
 (aldi honetan, *-n* baten atzetik egoteagatik, antza, atzizkia egoera berezian egon arren, *xaniuén* aditu uste izan genuen *-xani-uén* baten antzera, alegia-, *xan yuén* gabe)
 CK: pues... áltxatzén yúen, ta...
 (aldi honetan, aldiz, *yuén* hori garbiro aditzen da)
 PA: erósi iuén
 JU: ík eròsi yuén etxea
- 3-27 CK: ík eré erósi iuén ógia
 PA: erósi iuén
 JU: xa(n) yuén sagárria
 (adizki hauetako hasieran *y-* baten agerpena maiz aurkitzen dugu, XIX. mendean, kasu hauetarako, *uen* bildu baldin bazen ere. Plurallean, aldiz -3-66 eta 3-67 zk.ko adibideak- ez dugu hasiera bereko adizkirik bildu)
- 3-28 CK: zurgína pues... áníz gáúza egìten zuén, zùrginák
 (*aníz gauza* sintagmak, multzo bat bezala harturik, nonbait, singularrean betetzen du aditzarekiko komunztadura, beste zenbait adibidetan ere ikusi bezala)
 CK: béndezitzen zuén / kán benédikatzén zuen, alórrrian
 CK: ta kán, méza entzúiten zuen, ermítan
 CK: [*arotzak*] pujámántëaz... gèntzen zuén... azázkala
 CK: ta... ène ámak egìten zuén... tortas de maíz; iríña... ió, èrrotán, ta géro, opílak éin... irín kartaz; ta ónik! bàia patákak, bexkúa élki... làrtzétik, eta xán... guk
 (aditza singularrean izatean hemen kokatu dugu esaldia)
 SK: áitak eráugi zuén pelótak
 (antzeko gauza: Salvadorrek pluralerako eskatu zitzaion erantzuna singularrean eman zuenez, hemen kokatu dugu emaitza)
 SK: xan zuén
 JK: ógi eta dénak ekàrtzen (t)zuén kótxëarekin
 (bitxi da ‘ekarri’ hori, zaraitzuar era, ohiki, *eraugi* edota *eragui* deanean, nahiz *eragi* edota *eragu* bezalako aldaerak ere -Erronkari aldean erabiltzen zirenak, bestalde- aditzen diren)
 JK: órduan, lánëan, itén zuen étsëa(n)
 CK: disfrútatzen zué jéndëak anítz
 (hona, berriz, aezkeratiko eragina adizkiaren *n*-aren galera dela eta)
 CK: etzuén famíliarík Sinforiána órrek
 JU: baiá, beró iten bazuén...
 (adibide honetan eta Javierren lehenxeagoko beste batean *iten* era laburtua dugu)
 CK: ta [*astoak*] ezpázuen èb(i)li náí, buen garrotazo!

³² *Xinuen* horren aldaera *xunen* dugu Zaraitzun -zuketan *zinuen* eta *zunen* bikotea dugu, beraz-. Hona, azken honen adibide gisa, Orontzeko dotrinan ageri den pasarte hau: *Ycusi zunena* [= *zunen* + *a*, alegia] *Jesucristo sorzren* [?]. Izan ere Espartza herrian, zuketan izan arren, era hauxe bildurik bai-kaude eta Otsagin gauza bera -herri honetan zuketan-, *zinuen* ezagunarekin batera.

- (‘garrote’ erdal hitza aski zabaldurik dakusagu inguru hauetan, are euskal atzizkiak hartu ahal izateko neurrian; izan ere 1975. urtean, Izaban, *bida garrotekaldi bat* moduko esaldia bildu baikenion Antonia Anaut andere ahaztezinari³³)
- CK: ta opílla erráten báizuen kán, sartzén zén ógia beño lén, èl-kitzéko... fitiágo; gu, espéra... ámak, nóiz eráguitzen zuén opíl(l)a, xatéko
(*báizuen* aurkitzen dugu esaldi honetan; *báitzuen* aurkituko Pablorigor zor zaion honen hurrengoan)
- PA: eróri zén anáëa (sic)... báitzuen
- SK: bilgórrarekin xàten zuénak anítzèkín fuértiao
(*bilgor* gazt. ‘sebo’ da; Uztarrozen ‘sebo royo’ dela aditu genuen aspaldi)
- JU: baía, etzuéna trabájatu náí... útz, ta fán
- JU: ya... iráuten zuénian kárnabálak...
- JU: bai, sártzen zuèla, b(u)rúan, búruan
- 3-29 CK: erósi zikán berzé bat, besté bat
- CK: beiák... sórtu zikán xál bat
(Azkuek, bere hiztegian, honela: Xal (BN-s), ‘ternero, *veau*’ –leku askotan ‘txekor’ esan ohi zaiona–, > ‘txal’, > ‘txahal’etik bide datorrena)
- SK: eráugi zíkan pelótak
(adizkiak pluralean egon behar lukeen arren, esaldia hemen kokatu dugu beste kasuren batean ere egin dugun bezala)
- 3-30 CK: erósi zinán
- 3-31 b SK: xan zixún
- JU: eta... [*gizonak*] tallátzen zíxun, ta emáztekiák maxklátzen zíxun... axéka-axéka
(Javierak berak, geroxeago, *máxklara, el brazaö* dela argitu zuen, Azkueren hiztegian *Maxkla* (BN-s), brazado, gavilla (de helecho): *brassée, glane ou fagot (de fougère)* gisako adierazpena ikusten dugula. María Cruz Esarte eta Javiera zenaren seme Julian Zelai eaurtarrak horretaz galdekatu ditugularik, *maxklatzen zixun* hori gazt. ‘engavillar’, ‘haciendo gavillas’, ‘engavillando’ dela erantzun dutenez, esaldiaren gaztelerazko itzulpena era honetakoa izan litekeela iruditzen zaigu: ‘y... el hombre segaba, y la mujer engavillaba... amontonando fajos’)
- JU: bàia... guziá emáten zixún erdéráz
- JU: baiá étsará, norbáitek akúditzen xin... zíxun, áma bázen edo...
(esaldi honetan Javierak, ustez zalantzan ibili ondoren, ‘nor-nork’ gisako adizkia erabili zuen, 3-11-b zk.ko besteren batean egin zutenaren antzera³⁴. Joera hau, haatik, ez bide da ezezaguna Zaraitzuko ibarrean, Espartzan ere *sobre todo (...)* *larónbatá ta igándia, akúditzen dik koná, jénde... gázteríak!* gisako adibideren bat baitugu... bestelakoren batekin batera bada ere: *jénde ánitz akudítzen dúk koná*. Bi adibideak Dionisia Garate zenari zor zaizkio³⁵)

³³ Lehenago aipatu *Erronkariko uskararen...* delakoan (FLV 25, 1977).

³⁴ *Xinuen* ere, berez, ‘nor-nork’ gisako adizkia da, aldi berean ‘nor’ saileko *zen* adizkiaren xukako alokutiboa dela.

³⁵ Samp(eban)ek ere, baina, iragankor gisa zerabilen: *Orduan familiaco áitaren mutilec acuditucicien arengana* (13-27), *Acuditucicien guero bere discipuluec biltzra corputza* (14-12), *acuditucicien discipuluec Jesusen gana eta galdinciacocien* (26-17), edota *Biramunean (...)* *acuditucicien suntu Pilatoren gana sacerdoten prínciepc eta fariseoec* (27-62), adibidez.

- JU: te órduan, pues, al tzáukénak, eròstén zixun... béor, edo ábre mándo, ta... paréjará ízan
(*zauken* honetarako ere, 3-21 zk.ko adibideren batean adieraziaren ildotik, *zoken* bildu zen XIX. mendean Eaurtan)
- JU: jendía(k), náí bazuen trabàjatú pues etzízun ipótekatzén finkáxkõa baia, etzuéna trabájatu náí... útz ta fán
- 3-32 CK: kán abáltze... abáltzen ginuén... guzíek
(*abaltzen* hori ‘afaltzen’ da, *abaria* ‘afaria’ den bezalaxe; erronkarieraz *aigaria*)
- SK: guk, zéra... èiten ginuén, míga, ogí ta...
- JK: nausía... Mauléon [hirian] ginuén
- JU: eròsi ginuén ógi bat
- JU: xàn ginuén ógi ánitiz; korí es ‘comimos mucho pan’
(auzo-euskararen eragina izan daiteke Zaraitzun hain gutxitan aditzen den *d* tartekatu hori, duela zenbait urte *gindue* era ezaguna bildu baikenuen Garralda, Aria, Orbaizeta, Garaioa eta Abaurregaina herri aetzetan. Garazi aldean, gainera, *gindien* bildu dugu duela urte gutxi, *ginién*-ekin batera izan bada ere³⁶)
- JU: z(e)?... ikàsi ginúen?
- JU: al gínuen bezála
- PA: géro, Urzáinkin, báginuén askázi: Orgánista [etxekoa]
(*askazi* hau ‘sendi, senitarte, familia’... gauza bera da)
- JU: bagínuen étsen egotéko... emàzteki bát... egóten xinuén
(Azkuek honela: **Emazteki** (AN-est, BNc, L, R, S), *mujer, femme*, saio hauetan hainbestetan ageri den **Emazte** hitzaz ere gauza bera dioela: 2º (BN-s), *mujer, femme*)
- CK: tä beár baginuén àrdo édan...
(*égan* aditzen dela dirudi)
- JU: a lo mejor biramúnëan eultzía ez baginuén aizatzén, etziéikexun indarráxia ere (...) etziéikexun éultzirik egín
(**Indarrex**i dakar Azkuek, zera esanez: (BN-s), trillo de las eras, *sorte de traîneau pour battre le blé*. Carmelok, bere aldetik, *indarraxia* eta *indarrexia*, biak erabili zituen)
- JU: kóntent gíaudétxu, átzo eròsi bāiginuén ógi bat
- JU: bétí xardókitzen beikinuén erdéráz, eskólan...
- JU: al’kínuená gábaz ta egúnaz
(informatzaile beraren ahotiko azken hiru adibideotan finkotasunik-eza nabaria da, dela sandhiak egiterakoan, dela *bait*-kausamenderagailuaren bokal bortitzak isteko joeragatik, oso arrunta ez dena, bestalde)
- CK: ezpélez... xaützen gintzán llárrena
(adibide honetan nabarmentzen den irregulartasunaz –erreflexibo itxura baitu adizkiak, gaztelerazko ‘(nos) limpiábamos la era con (escobas de) boj’ bailitzan, alegia– honako oharra egin genion Pedro de Yrizar jaunari, Eaurta honetan bildu datuak bidali genizkionean: “*Nor* saileko adizki batzuk *nor-nork* kasurako erabiltzea –pluralen batez ere– Zaraitzun guztiz zabalduko gauza izan da eta da oraindik ere, gaurko hiztunak oso urriak izan arren. Joera honekiko datu zehatzak Zaraitzuko beste zenbait herrirekiko informazioa ematen

³⁶ Emaizta horiek, beste zenbait biltzailerenekin batera, Pedro de Yrizarren *Morf. del verbo aux. bajo navarro occ.* izenburuko lanean (645-6 or.) eta *Morf. del verbo aux. bajo navarro or. (I)* delakoan (30 or. eta hur.) ikus daitezke.

- dizudan txostenean doakizu³⁷. Arazo hau Eaurtako euskarari eskaini lan honetako hirugarren entregan, zeini '(3 - Eaurta: bukaera)' azpigitulua emango baitzaio, ukituko dugu)
- JU: ténbrarúa... igártzen giníntzanéan
(*tenbrarua* hori 'sasoia, aldia, denbora' izan daitekeela iruditzen zaigu³⁸)
- 3-33 CK: erósi ginikán
JU: erósi ginikán ógi bat / eròsi ginikán etsé bat
JU: erósi ginián
- 3-34 CK: atzó gúk xan gininán axúri bat
JU: Raimunda, atzó erósi... eròsi gininán... ógi bat
- 3-35 b SK: xan giníxun
JU: ta géro, kúra, biltzen ginixún balétra, etsákai'atekin, etsakáiekín lotzéko... etsákaiá! bálaren lotzéko etsákai
(lehenxeago aipatu 'axeak' bilduz eta lotuz egin bide ziren 'balak', hauek, beraz, haiek baino askoz handiagoak zirela Javierak berak beste une batean agerian ezarri zuenez: *gantxó batzuk, a propósito, bastáren bi aldétra, eta, kayetán engántxatzen xinuén lenbitziko balá... ta geró, láu bal xinuén, mandamentöá abriarendáko, biáje bakótxean; eúltzia karriá!*. Esaldian ageri den *etsakai* hitzaz, bestalde, Azkuek aipamenik egiten ez badu ere, *ertsakai* delakoaz zera dio: (BN-s, R), atadura, vencejo: *attache, lien*)
- JU: ta gári... gári kúra, egín kúra ígartzen ginixún tórnu báte-tarík, eta írina álde bát eta zágia berzé bat; eta ógia íten ginixún etsén, lábiak etsén... ta kála mántenatzen gintzaxún...
- JU: baia gúk, edókitzen ginixún guardia civil ánitx...
(*edoki* hori, zaraitzueraz, 'eduki' baldin bada ere, ibarreko beste zenbait herritan *iduki, itxiki* eta *etxoki* moduko aldaerak bildu ahal izan ditugu)
- JU: xán ginixún ógi anitz / átzo eròsi ginixún ógi bat
JU: kubrítzen gënëxún llarrená
JU: gúk [Javierak berak eta haren ahizpak] xardókitzen genixún... uskéra, bíek... bíok sólo gintzaxun, eta...
(*sólo* hitzak, kasu honetan, 'bakarrak' esan nahi duela dirudi)
- JU: ézkinixun ikási... estudiátu iön ére!
JU: xáutzen gintzaxun, llarrená
(*xau(tu)* gazt. 'limpiar' da; Uztarrozen *xate(tu)* eman zigun Fidela Bernat zenak)
- JU: eta apárejatzen gintzaxún kuérda batekín, indárráxia
(alokutiboa erabiliz ager daiteke, orobat, lehenxeago aipatu erreflexibo-itxurako ordezkapena, azken bi adibideak lekuko; singularrean, aldiz, nekez gertatzen da)
- 3-36 CK: zuék eré xán zinién
(Carmelok, Pablok bezala, datibodun izenorderako *zer* erabiltzen bazuen ere -ikus bitez 2-16 zk.ko adibideak-, ergatiboarekin *zuek* zerabilen beti, honetan Javierarekin bat zetorrela; Pablok, aldiz, bai-

³⁷ Iruzkintxo hau Yrizarren *Morf. del verbo aux. bajo navarro or. (III)* delakoan (328 or.) ikus daiteke.

³⁸ Hitz horri buruz galdetu genion, dena den, duela denbora gutxi María Cruz Esarte eaurtarri; hona erantzuna: *hay un buen tempero pa'sembrar, lúrra ónik... erégiteko*.

ta azken honetarako ere, *zek* eman zuen, 3-16 zk.ko adibide batean ikus daitekeen moduan, 1-15 zk.ko esaldietan dugun nominatibo kasu baterako ere emaitza bera eskaini zuela³⁹)

- 3-37 PA: xan zinién
 CK: erréskatátu zién... Amá Berjínara
 (*Amá Berjínara* aditzen ote den gaude eta daitekeena da; izan ere, beste uneren batean bai, *ñ*-ez aditzen da eta argiro gainera)
 CK: ta kóri egiten zién; ta géro, beár zutén ermán úgáldiala, karrikará gáindi
 (Carmelok, esaldi honetan, *zien* eta *zuten*, bi adizkiak erabili zituen, beste zenbait alditan ere bata zein bestea emanetz, orainaldiko erak aztertzean esan dugun bezala)
 SK: xan zién
 CK: ta... astó bat, bazién
 JU: ... ta áurten etzién nai izán ikási!
 CK: ... xan baizién anítz
 SK: ta bérze kuadrilla(k), bérek eíten baitzién [baitzüén?] órioa...
 (Uztarrozen ere *orio* aditu genuen aspaldi Fidela Bernaten ahotik eta baita bildu ere haren biloba Josu Alastuey-ren laguntzaz⁴⁰. 2000. urtean, ordea, Eaurta honexetan, *ólio* eman zigun Columba Samper andereak, era hau izanik, itxuraz, Zaraitzu aldean gehien aditu dena, ditugun datuen arabera⁴¹)
 SK: tíña deátzen baitzién⁴²
 JU: ta... erdérax xardókitzen báitzien
 JU: aítá, amíguak zíaudetxun kóntent, porque... eròsi baitzién étxea
 (Carmelok *zien* honekin batera *zuten* ere maiz ematen zuela ohar-tzean –ikus geroxeagoko lerroak–, Javierari galdetu genion: ‘eta erra-ten dea, erran daikea, *erosi báitzuten?*’, hark orduan: ‘ez, eròsi *báitzien*, *báitzien*; *báitzutén* kláro! uskéra xú!’)
 JU: baxínuen zomáit ez báitzien... na’ízan, ikási...⁴³
 SK: àrdi zienék árdiekin
 (*ardi* era mugagabea ematean Salvadorrek ez zuen aditza zertan pluralizatu izan, antza)
 CK: egózten zutén bídetik, belárra...
 (*zuten* hau –zeina aezkeraz dugun *zute*-ren eragina izan daitekeen– nekez aditzen da zaraitzueraren eremuan, informatzaile honek sarritan erabili bazuen ere)

³⁹ Espartzan, ordea, *ziek* bildu dugu nominatibo zein ergatiboan eta baita, datibo-kasuan, *zier* ere.

⁴⁰ *EDEL I*, 135 zk.ko erantzuna.

⁴¹ Samp(eban)ek ere azken era hau erabili zuen: *etzicien eguin provisioneric olioz* (25-3), edota *Emandazaicucie cearen oliotic...* (25-8), adibidez.

⁴² *Un vocabulario...* delakoan, zaraitzueraz, ‘tíña’ erdal hitz hori *ezkabi* dugu, Zoilo Moso otsagiarrak ere J. Estornés Lasari egin gutunetan erabilia, Azkuek, bere hiztegian, zaraitzueratik kanpo utzi bazuen ere. *Ezkabi* hitza geu ere, behin baino gehiagotan gainera, aditurik gaude, adibide gisa duela hamabost urte inguru Erroibarko Biskarreta-Gerendiainen ehun urte betetzera iritsi zen Catalina Linzoain andere xarmantari aditu geniona jarraian doala: *Sarna fuera, ezkabia kanpora, artoa Franzia-rra y garia Española*. Esamolde hau San Juan bezperan herriko etxe-atarien aurrean egin ohi ziren suen gainetik jauzi egitean gazteek oihukatzen omen zutena zen.

⁴³ Kurioski, *El Salmo quincuagésimo...* delakoan (1867), aditz hau modu berean azentuaturik ageri da: *Céren naizan bacinu sacrificio...*

- CK: erámatén zutén... gérrén bat; ta kán, sártrik... emáten zutén
 (hona Azkueren deskribapena: Gerren : 1° (AN-b-est, BN-c, Lc, S), asador, instrumento de hierro o de madera : *broche, instrument en fer ou en bois*)
- CK: ta beiék ermàten zutén indárraxiá térter... ta astóak... basté bat
 (nahiz 'terter' hitza lehenagotik ezagutu, Carmelori hartaz galdetu eta berak gaztelera zko ordaina 'arrastras' dela esan zuen; beste uneren batean, gainera, eultziar ari ginela, aipatu lanabesaren gainean eta alea hobeki xehekatzeko asmoz harri bat ezartzen zela esan zuen, *indárraxiarén tertékatzéko*)
- CK: t'ebátsi zütén Amá Berjinara; t'abísatu zütén...
 (lehenagoko beste kasu batean bezala, oraingo honetan ere *-ñara* aditzen ote den gaude)
- CK: pádreuéstroa esàten zütén!
 (*esaten* hori bitxi da, oso, Zaraitzun)
- CK: lé(e)n, eitén (t)zütén gamítaz baëa...
 (Carmelok *gamita* hau lau aldiz erabili zuen, beste behin *ganbita* erabili zuela; iragan 2000. urtean Eaurtako bi andere adintsuri ere –Columba Samper eta María Cruz Esarte haien deiturak– *gamita* aditu diegu esaten, ez *ganbita* ez *gaminta* bat ere gabe)
- CK: géro ein zuté... kamió bat, berrírik
- JU: mutíkoa erágui zten kórren... ázken... páriala, etxé bat, kan
 (hona, azkenik, Javieraren ahotik ere, *zuten*-etik *zien*-etik baino gertuagoa dirudien adizki laburtua)
- CK: bazúten kárroa esprésaménte korrèndakó
 (destinatiboa dela eta, *-(r)endako* dugu Eaurtan aditzen den deklinabide-marka, lanean zehar ikus daitezkeen adibide batzuk lekuko: *duenarendako, eultziarendako, korrendako, berendako*... honetan guztian zaraitzuer, Erronkarira gabe Aezkoa aldera begira dagoela, 'kalles' en artean *-(r)entako* erabili ohi baitzen, haien fonetika ezagunaren ondorio)
- CK: Espáñan... etzütén operatzen; ordúan éz (...) iltzén ziren... de cólico miserére
- SK: tíña deatzén ta... etzütén...
- CK: ... mándo ta zámáriak, erràten zütéla
- 3-38 CK: xan ziókan
 PA: xan ziókán
- 3-39 CK: xan zienán
 PA: xan zienán
 (toka eta nokako azken bi era hauek ematean Carmelok azentuera desberdina erabili zuen, ez horrela Pablok)
- 3-40 b JU: eta eráugi zixién... érđi auskára, (zuzenduz:) uskéra, eta érđi erđéra
 JU: len... emàten zixién buélta músíkuek; orái bátre
 JU: bí áinzpa sólo, eta anáe bat, ta anáia gerrán íl zixién
 JU: etzixien étse erđí kóri bàizik ére...
 (zail da, batzuetan, esaldi hauetan dugun *zixien* eta hurrengoetan ageri diren *zixen*-en arteko desberdintasuna nabaritzea)
- PA: xán zixén
 JU: ta anáia íl zixén... ta, ni...

JU: ta a lo mejor biltzen zíxen limósna...

SK: bueno, pues yá... fija zixén... xú fatéko xúnto bí kuadrílla

SK: xan xíxen bát sólo

(honela gure apunteetan, bitxi bada ere⁴⁴; *sólo* hori, bere aldetik, aditzondo delá uste dugu, 'bakarrik', alegia)

3-41 - 3-60, orainaldiko plurala; 3-61 - 3-80, iraganaldiko plurala.

| adizki -zenbakia | eredua eusk. batuan | Eaurta 1872 | Eaurta 1989-93 |
|---------------------|------------------------|----------------|------------------------|
| 3-41 | ditut | tut | tut |
| 3-42 | tok. alok | tiat | tiat |
| 3-43 | nok. alok | tinat | tinat |
| 3-44 a | zuk. alok | tzut | |
| 3-44 b | xuk. alok | | txut |
| 3-45 a | dituzu | tzu | |
| 3-45 b | id. (xuka) | | txu |
| 3-46 | dituk | tuk | tuk |
| 3-47 | ditun | tun | tun |
| 3-48 | ditu | tu | tu |
| 3-49 | tok. alok | tík | tík |
| 3-50 | nok. alok | tín | tín |
| 3-51 a | zuk. alok | tzu | |
| 3-51 b | xuk. alok | | txu |
| 3-52 | ditugu | tugu | tugu |
| 3-53 | tok. alok | tiagu | tiaguk |
| 3-54 | nok. alok | tinagu | tinagun |
| 3-55 a | zuk. alok | tzugu | |
| 3-55 b | xuk. alok | | txugu |
| 3-56 | dituzue | tzie | tzie |
| 3-57 | dituzte | tie | tie, tu(z)te, duzte |
| 3-58 | tok. alok | tie | tiék |
| 3-59 | nok. alok | tine | tine |
| 3-60 a | zuk. alok | tzie | |
| 3-60 b | xuk. alok | | txie, txe |

| adizki -zenbakia | eredua eusk. batuan | Eaurta 1872 | Eaurta 1989-93 |
|---------------------|------------------------|----------------|--|
| 3-61 | nituen | nituen | nituen, nintuen |
| 3-62 | tok. alok | nitikan | nitikan, ni(n)tzakan |
| 3-63 | nok. alok | nitinan | nitinan |
| 3-64 a | zuk. alok | nitizun | |
| 3-64 b | xuk. alok | | nitxun |
| 3-65 a | zenituen | zintzan | |
| 3-65 b | id. (xuka) | | xintxan |
| 3-66 | hituen | ituen | ituen |
| 3-67 | hituen | ituen | ituen |
| 3-68 | zituén | ztuen | zituén, ztuen |
| 3-69 | tok. alok | ztikan | ztikan |
| 3-70 | nok. alok | ztinan | ztinan |
| 3-71 a | zuk. alok | ztizun | |
| 3-71 b | xuk. alok | | zitxun |
| 3-72 | genituen | gintzan | gintzan |
| 3-73 | tok. alok | gintikan | gi(n)tikán, gintzakan |
| 3-74 | nok. alok | gintinan | gi(n)tinán, gintzanan |
| 3-75 | zuk. alok | gintzun | gintxun, gintxun, gintzaxun |
| 3-76 | zenituzten | zintzayen | zintzaen |
| 3-77 | zituzen | ztien | ztien, ziztien, z(it)uzten, ztuzten |
| 3-78 | tok. alok | ztiékan | ztiékan |
| 3-79 | nok. alok | ztiénan | ztiénan |
| 3-80 a | zuk. alok | ztizien | |
| 3-80 b | xuk. alok | | zitxien, zitxen |

adizki-zk.

3-41

CK: garíllarén... amáseigarrénëan, betétzen tút úrtiak⁴⁵
(*garilla* hori, euskara batuan, 'uztaila' dugu)

CK: urté anitz e... tút orai

(baliteke *anítz* izatea, Erronkari ibarrean erabili ohi zen moduan)

CK: ník béte tút... laurógeit'améka

CK: úrte ánitz... tú'ya

CK: bátut... bixpúr [lagun] ène giblétik

(*báturùt* aditzen ote den gaude; *bixpur* horretan, bestalde, balio tti-kigarria egon liteke)

JK: ník batút láur seme

CK: úrte aníz báit... tú'ya

⁴⁴ Bonapartek bildu datuetan ere, dena den, bustidura bikoizturen bat aurki daiteke; Nafarroa Behereko Irisarrin, adibidez, *xuxun* bildu zuen, 'zuxun'en ordezt [= 'zen' -xukako alokutiboa-], eta Iholdin *xixin*, 'zixin'en ordezt [= 'zuen' -xukako alokutiboa hau ere-], P. de Yrizarren *Morf. del verbo aux. bajo navarro or. (II)* delakoan ikus daitekeen moduan.

⁴⁵ Samp(dotr) delakoan, aldiz, era honetako adizki osoren bat aurki daiteke: *Nic ematendauzquitzut graciae (...)* *zoim zure escu generosotic recibitubaititut* (53. or.), esate baterako.

- (ez dirudi, Carmelok aurrenik eman antzeko adibideak ikusirik, adizkiaren leherkari gorra sandhi bati zor dakiokkeenik, are gutxiago 'bait' menderagailuaren ondoren etenalditxo bat egin zuela ikusita)
- CK: orái bérian yan (sic) tutának diaudék oník
(aditza iraganaldiko egoeran itxaron zitekeen, behar bada: *ziaudekan*, adibidez)
- PA: eta nik xan tutanak ere bai
(hots, singularrean, 'xan dutana' gabe, *xan tana* erabili ohi den moduan⁴⁶, pluralean ere, 'xan ditutanak' gabe, *xan tutanak* erabiltzen da)
- 3-42 CK: xan tiát guziák
PA: erósi tiát
- 3-43 CK: gáldu tinát
- 3-44 b SK: gíltzak gáldu txút
- 3-45 a CK: xán tuzú
- 3-45 b SK: xúk xán txu guziák
(ikus 3-05-b zk.ko Salvadorren emaitzari egin diogun iruzkina)
- 3-46 PA: erósi tuk
CK: xan tuká sagárrak?
- 3-47 SK: aréstian eré xán tún
- 3-48 CK: ermàten tú bére aitak
PA: erósi tu
JK: úrte ániz tú, e?
JK: órrek batú laur, láur seme
JU: pues... zómat úrte tuén?
CK: orái xan tuénak ere báí⁴⁷
- 3-49 CK: xan tik
PA: erósi tik
- 3-50 SK: Isabel, apézak xan tín guziák
- 3-51 b SK: apézak eré xán txu
(lehenago ere esan dugun legez informatzaile hauek, sandhiak ekidinez, antza, ongi berezi dute singularra eta plurala: *xan xu* -3-11-b zk.ko adibidea, esaterako- eta *xan txu*⁴⁸)
- 3-52 PA: gúk xan tugún sagárrak yituén górrí
CK: xan tugúnak
- 3-53 CK: xan tiagúk
PA: erósi tiáguk
- 3-54 CK: gúk eré sáldu tinágun
- 3-55 b SK: gúk eré xán txúgu
JU: pues... egún ketan izan txugú féstak

⁴⁶ Otsagin, baina, 'dutana' era osoa aditu dugu singularrerako, behin baino gehiagotan gainera.

⁴⁷ Samp(dotr) delakoan, *Dituenac eta ginestentuenac Eliza sandu romanac* irakur daiteke (11. or.). Eaurtako abadeak, baina, laburbildu gabeko era -*dituenac*- idatzi zuen aurrenik bigarrenaren kasurako ere, aditzaren hasierako silaba ondoren ezabatuz.

⁴⁸ Samp(dotr) delakoan, adizki honen zukako erabilerari dagokionez, honako adibideak ikus daitezke: *guciac beren viciaren acabacioan juzgatren eta sentenciatrenditzu Jaunac* (16. or.) -erdizkako laburbilketa-, alde batetik, eta *doctoreac baitzu ama sandu Elizac* (17. or.) -erabateko laburbilketa-, besetik.

- 3-56 CK: xan tzié sagár guziák
PA: zék eré erósi tzié⁴⁹
- 3-57 SK: étxe guziák erósi dié, erósi tié⁵⁰
(singularrean eman zuen, aurrenik, Salvadorrek; laguntzarekin ondoren)
CK: xan tiénak ere báí
PA: xan tiénak aixkídek [zeuden] bérde
CK: ta urdákiak, erràten báita... elkitzén tüté, gàtzetík
(*urdaki* gaztelerazko 'tocino' da)
CK: baëa órai, txokárratzen tuzte; txokárratzen duzté órai
(Azkuek honela: *Txokarratu* : 1º (BN-s, R-uzt), requemar, *roussir*. Hitz hauxe aspaldi bildu genuen Uztarrozen Doroteo de Miguel eta Fidela Bernat lehengusu-lehengusina zirenengandik, biongandik)
CK: ta kán [basurdeek], àzten tuzté txérri txikínak, múntioan
(Carmelo da, lehenago esan bezala, *dute/zuten* eta, pluralean, hauen ildoetako erak, berauen aldaerak eta guzti, erabiltzen zituen bakarra)
CK: kan, béiak, edókitzen tuzté bordétan erràten báita
- 3-58 CK: xan tiék
PA: erósi tiék
- 3-59 CK: sáldu tiné
PA: erósi tíne
- 3-60 b SK: xan txié
JU: ta partídak xokatzén txie, báita... báita... frontóna!
PA: eròsi txé
- 3-61 CK: nik... kontúak, ikàsi nituén...
CK: ta págatzen nituén... xána, zázpi suéldo... égúnian; ta irú-ogeí (sic) dúro... erákustekó ofízioa
(adizkia singularrean hobeki legoke, agian; *sueldo* hori, bestalde, hogeita bost xentimotako txanpon bat zen, Joaquín Garrues ilurdoztarrak aspaldi aditzera eman zigunez⁵¹)
PA: sóldaö fan báge, igèri nituén... bí úrte, eta soldáutik xínta, igàri nituén... béstia
(azken *nituen* hau *nintuen* aditzen ote den zalantza dugu; horretaz landara, *igeri* eta *igari* bezain beste, agian, *igare* aditzen da Zaraitzun)
CK: ogèita bós edo séi úrte banituén
CK: ník ságár xán nituenák ziaudekán oník
(era honetako esaldi erlatiboak –hauek baino ohikoagoak direnekin batera, hori bai– oso zabaldurik daude Zaraitzun eta Erronkari aldean ere bildurik gaude, Aezkoan eta beste zenbait lekutan, orobat, ezagunak izanik; geroxeago ere zenbait adibide ageriko da)
PA: ya... nituelarík berrogóita... zázpi úrte, órduan

⁴⁹ Samp(dotr) horrexetan, halaber, *Cér gauzac dra zuec eta arec ditcienac eta ginestentcienac?* (11. or.) irakur daiteke, non, arestian ikusi moduan, lehenengo kasuan laburbildu gabeko era eta, bigarrenean, laburbildua aurkitzen dugun. Honetaz gainera, dotrina honen 44. orrian erdi laburbilduriko adibide bat dugu: *Ceren deituítie becatu capitalac zazpi curac zoín comunzqui deitzenbaitra mortalac?*, esaterako.

⁵⁰ Kasu honetan ere laburbildu gabeko adibideren bat irakur daiteke Samp(dotr) delakoan (25. or.): *Eta mandamentu contan comprenditcendraya obligacio gueagocoac ezic semec ditienac beren aita eta amarequico?*, adibidez.

⁵¹ Z. Moso otsagiarrak ere, hau dela eta, *de veinticinco cts: sueldo bat* idatzi zuen halako batean. (*Zoilòren uzta...*, 61 or.). Iribarrenek, ordea, 'Moneda antigua equivalente a medio real' dela dio.

- (hona 'hoge' zenbatzaileari buruz lehen esanikoa kolokan jartzen duen salbuespena)
- 3-62 CK: eztík ténbra ánitx sáldu nitikán sagárrak
 PA: erósi nitikán / erósi ni(n)tzakán [ogiak]
 (hots, Pablok, bi egun desberdinetan, bi joera desberdin erakutsi zuen. Yrizarri bidali adizki-koadroetan honako oharra egin genion: "Joan den mendean [XIX.ean, alegia] ez bezala, *ni* pertsonaraino ere iritsi da kutsadura desagoki hori: *ni(n)tzakan*")
 PA: eta, lo menos... ogèitabí úrte etsé'ra nitían
- 3-63 CK: sáldu nitinán
- 3-64 b SK: átzo xan nitxún ságar guziák
- 3-65 b SK: xúk xan xinuéen sagár guziák
 (adizkia singularrean emana; hurrengo aldiaren ordea, ustez pluralizatu nahi izan zuenean, era desagokia erabili zuen –Zaraitzun oso ohikoa, bestalde–, jarraiko bi informatzaileek ere argiro erakutsi zutenez)
 SK: xúk eré xán xintxán [sagarrak]
 PA: xúk eré erósi xintxán étse guziák
 JU: xúk átzo xán xintxán ògi guziák
- 3-66 CK: ík eré sáldu ituén
 PA: erósi ituén ík
 JU: sáldu ítuen ètxe gúziak
 (Javierak, adizki honen singularreko kasurako, behin eta berriz, *yuen* emana zuela ikusiz, galdetu genion: 'ítuen' edo 'yituen'? hark, hasiera honetarako, *y*-aren soinu kontsonantikoa ez onartuz, hala egitean koherentzia handirik erakutsi ez bazuen ere)
- 3-67 CK: ík xa ituén giltzáurak
 (kasu honetan ere, lehenagoko beste adibide batzuetan ikusi bezala, bi bokalen arteko *n*-a erortzen utzi zuen Carmelok)
 PA: erósi ituén ík
- 3-68 CK: Gregóriak, kórrek, ìzan zituén... láur séme, t'álába bat
 (Carmelok kasu honetan adizkia osorik eman arren, gehienetan laburbildurik eman zuen, gainerako informatzaileek bezala⁵²)
 CK: ta... árdixko batzúk, áxto bát eta mándo bat; pues kaékin ìten ztuén éne aíták lának
 (*axto* horrek, hor, *ardixko* horren atzetik gainera, txikigarria izatearren itxura du, baina irudipen hau ez da batera segurua, Samperren itzulpenari behatuz gero bederen⁵³. Edozein kasutan Carmelok berak, beste une batean, eta baita Javierak ere, *asto* hitza erabili zuten)
 CK: ta úrte bakotxán, iltzén ztuén bát edo bída, etséko konsú-mérendáko
 (azken hitzaren *me* silaba hori ere, asimilazioa ote?)
 CK: ene ámak àzi ztuén... zórtzi!
 CK: ta kárek íten ztuén koék, gáuza koék guziók íte ztué (sic) kárek
 PA: erósi ztuén
 JU: erràten duénak bída, ábrëak baztuén...

⁵² Samp(dotr) delakoan bi eretako adibideak ditugu: *eta guelditcenzu* ['hura', alegia] *obligacioarequin itzulceco confesatzra becatu confesatuztuenac eta confesatuezcituenac...* (39. or.), adibidez.

⁵³ Samp(eban): *assto batec moguitzenduen errota arri coitaric bat*, 'una de esas piedras de molino que mueve un asno' (18-6).

- CK: itzéak bazuén apropósito kòrrendakó
 JU: áita, nióxu kóntent, apézak eráugi báiztuen líbröak
 CK: aíták xán ztuénak ziaudekán oník
- 3-69 CK: anáiak eré sáldu ztikán
 PA: eròsi ztikán sagárrak
 JU: xan ztikán ògi guziák
- 3-70 CK: aíták eré saldú ztinán
- 3-71 b SK: apézak xan zitxún
 (damurik, adizki hau informatzaile honengandik bakarrik bildu genuen, baina gaude Carmelok berak, adibidez –ikus honen aurreko toka eta nokako bi erantzunak– *ztizun* emango zukeela, XIX. mendean bildu bezala)
- 3-72 SK: átzo erósi gintzán [pelotak]
 SK: ègozten gintzán... tíña deàtzen baitzién kán, zér batzúk...
 PA: erósi gintzán sagar guziák
 JU: kóntent giáudek, átzo xán baigintzán bizpúr o... zómait⁵⁴
 ogi
 (esaldi honetako adizkia, guk egin ‘(oye, Pedro), estamos contentos porque comimos los panes’ galderari emaniko erantzuna izatean, pluralizat jo dugu, baina litekeena da Javierak *bizpúr o... zómait ogi* horiekin ogiok multzo bezala hartu izana; hala izatekotan esaldia 3-32 zk.ko emaitzen artean sailkatu beharko genukeen. Galdetu genion, badaezpada ere: ‘eta *xan baigintuen*, ez?’, hark orduan: ‘*xan baigintuen* ya... da... kendik aparte’)
- CK: xan gintzának eré baíta (e)re
 JU: gári ta ólo ta... sémilla gintzanák!
 (pluraleko kasu hauetan guztietan lehen aipatu ordezkapena, aspal-ditik bide datorrena, erabatekoa da, balizko *gintuen* baten ordez *gintzan* aurkitzen baitugu aldi oro⁵⁵; eta era honen alokutiboei gagozkiela, hurrengo adibideek –gehiengoz bederen– lehia horixe nagusituz etorri dela erakusten dute, XIX. mendean, kasu hauetan, era egokiak bildu baitziren)
- 3-73 SK: átzo erósi gitíkan
 (Salvador izan zen hikako alokutiboak egokiro eman zituen bakarra, nahiz, behar bada, tokako kasuan *gintíkan* itxaron zitekeen eta nokakoan *gintinan*)
 JU: xán giniká(n)... xán gintzakán ógi ánit
 (aldi honetan Javierak –adizkia singularrean jokatuta, baina– era egokian abiatu arren, Zaraitzun hain erroturiko molde oker jakinetik jarraitu eta bukatu zuen esaldia)
 CK: gúk xán gintzakán sagárrak
 PA: erósi gintzakán sagárrak
 JU: orái duéla borz úrte, eròsi gintzakán ètxe guziák
 (Javieraren azalpena: ‘edo *erósi giníkan*... baia bát, bat... ta *erósi gintzakán*, yágo’. Hots, tokako adizki egokia erabiltzekotan singularrean ematen zuen, pluralerako itxaron bide zitekeen *ginitian* edo *ginitikan* gisako erarik bat ere gabe)
- 3-74 SK: átzo erósi gitínan
 CK: gúk eré xán gintzanán giltzáurak

⁵⁴ Hitz honetan ageri den *nb > m* gisako bilakabidea dugu, eta baita, *zomait* bere aldaeran, *zomat* eta *lemiziko* hitzetan ere, gutxienez.

⁵⁵ Otsagin, dena den, eta nekez izan bada ere, *gintuen* aditu dugu.

- 3-75 b PA: erósi gintzánan [sagarrak]
 JU: xán gintzanán ogí ánitiz (adizkia erakarrita)
 JU: gàragarrá ta... ílar ta... órduan... gúzia erégiten gíntixun, guzéák!
 (hau da xukako alokutiboen artean egokia dirudien bakarra –pluraltzailea eta guzti–, hurrengo esaldian, esaterako, falta dena. XIX. mendean, diogun bidenabar, *gintzun* era laburbildua bildu zen zuketan, nondik, xukako kasu honetarako, *gintxun* izango genukeen)
 JU: ta géro eráutzen gintz-... erótzen... ginixún? bálak, àbria-rékin, llàrreniála
 (esaldi hau esanguratsua iruditzen zaigu, Javiera, abiatu ere, *nor* sailleko adizki desegoki batetik abiatu arren *nor-nork* gisako beste batera iragan zen, honekiko pluraltzailea ezin aurkitu izatean –arteko galdera eta guzti– zalantza agerian utziz, esaldiaren testuinguru kontuan harturik hemen kokatu badugu ere; *erautzen/erotzen* bikote hori, bestalde, ‘eraugi/eragui’ ezagunetik datorrela uste dugu)
 SK: gúk ere báí, xan gintxáxun, xan gintzáxun [ogiak]
 PA: erósi gintzáxun [sagarrak]
 JU: ta kúra, kólléron batèz... iten gintzaxún trásteak, kruzátrik lèpo-bulárria⁵⁶, eta lépöan erè kolleróna, eta apárejatzen gintzaxún kuérda batekín indárráxia... zérrarekín; tábla batzúk unitrík... eta zérra batzúk péan... pikátzeko; kúra engántxatú ta hála! árre!
 (hona Iribarrenek *collarón* hitzaz dioena: *Collerón*, *collera de las caballerías* (de uso general); *trásteak*, bestalde, ‘aparejos de trillar’ direla dio Javiera zenaren seme Julianek, guk berariaz galdeturik)
 JU: geró, itén gintzaxún balák... eta... geró, eultziarendakó, karríatzen gintzaxún anímalekín, mánduekín, bálak
 JU: aizáxu amá, atzó xan giníntzaxún... ogí anitz; xan gíntzaxún ogí anitz
 (3-32 zk.ko erantzunen artean Javierak berak eman *xán ginduéen ogí ánitiz* ‘*comimos mucho pan*’ moduko adibide bat baldin badugu ere, kasu honetan ‘*muchos panes*’ esan edo adierazi nahi izan zuela pentsa daiteke, behar bada)
- 3-76 CK: zuék eré sáldu zintzaén
 PA: erósi zintzaén étse guziák
 PA: xan zintzaén ógi guziák
 (esaldi hauek ere gaztelerazko ‘(os) los/las vendisteis, comprasteis, comisteis’ dirudite; era honetako ordezkapena, jada, XIX. mendean ezaguna zen)
- 3-77 PA: xán ziztién
 (hauxe dugu, era hau dela eta, ustez laburbildu gabe bilduriko emaitza bakarra –balizko **zitién* bat, agian, aski izango bazen ere–; galdetu genion: ‘xan ziztien’ edo ‘xan ztien?’ - ‘enétakó *xán ziztién* izan zen erantzuna)
 CK: kárnabálak ìte ztién anítz óngi⁵⁷
 CK: bordétan, edòkitze ztién béiak

⁵⁶ *zèpo-bulárria* aditzen ote den dirudi, Javiera, ahoskatzean, zertxobait trabatu zen seinale, antza.

⁵⁷ Samp(dotr) delakoan era osoak zein laburtuak ditugu: *guardatubaicitien* eta *ezbaiztien guarda-tu*, adibidez (6. or.)

CK: e(d)o karretilla bát, garretilla batzúr baiz... baiztién, karretíllak ermán, falt'íten zuén lekúala

(Carmelok *batzu* eta *batzur* erabiltzen zuen nominatiboan, eta *batzuek* ergatiboan; *batzur* hori Otsagin eta Espartzan ere, gutxienez, aditurik gaude)

JU: áita, nióxu kóntent, adiskídiek eràugi báiztien libru guziák

CK: xan ztiénak ere baitá ere

PA: aixkídek xan ztiénak ituén, yituén bérde

(galdetu genion: nola gehiago, 'ituen' edo 'yituen?', hark *biak* erantzunez)

PA: átzo aixkidék... xán ztiéla guziák

CK: ta karruétan sártzen zuztén óntziak

CK: eitén tzuztén bolá batzuk, ta ermáten z(i)tuztén... buéltakà, karríkara gáindi buéltaká⁵⁸

CK: kan, béiak, edòkitzen (t)zuzté, bordétan erráten báita

CK: ta kán iten zuzté... tzintzériak, negúrri guziétarik

(azken bi adibideotako adizkia *-n* lehenaldiko markaz gabeturik dago, Aezkoa aldetiko eragina erakutsiz, duela zenbait urte Abaurregaineko bikote bati bildu genion *zuzte* batek berak agerian ezartzen duenez; *negurri* hitzari dagokionez, bestalde, berak bezala tartekaturiko *g* bat erakusten duten *aguerrik* [= alferrik], *aguña*, *begarri*, *borzegun/zazpiegun* eta *eregin* moduko beste batzuk bildurik bagaude ere, maiz askotan leherkari ozen hori erorita aurkitzen dugu⁵⁹)

CK: bá(t)zuztén axtúrrak oník, ardíen moztekó

CK: órai ez baia lén, eitén zutén gáztak

CK: bazutén [bazütén?] txábola zár batzú, bèrendakó

(azken bi adibide hauetan adizkia pluralizatu gabe azaltzen zaigu)

CK: eún káitan, eíten zütén konfésioak, fraillé, frailéa edo... fráile xíten zenari

(komunztadura bitan apurtzen da, batetik *zütén* adizkia singularrean dagoelako eta, bestetik, adizkiak berak 'nor-nori-nork' sailekoa behar lukeelako)

3-78

CK: sáldu ztiékán

CK: érden ztiékán guziák éginik

PA: xan ztiékán

JU: xán ztiékán ògi guziák

⁵⁸ Samp(eban)en itzulpenean ere 'gáindi' aurki daiteke: *Fatencelarié bideagáindi egun batez Jesús Galileaco ichasoaren erribrá*, 'Caminando un día Jesús por la ribera del mar de Galilea' (4-18), *ezic ihor ezbaítzen atrevítzen igartzra bide cura gáindi*, 'que nadie osaba transitar por aquel camino' (8-28), edota *bereala igorricien avisu territorio cura gáindi*, 'luego enviaron aviso por todo aquel territorio' (14-35), esaterako.

⁵⁹ Hona, honi buruz, Mitxelenak (*Notas fonológicas...* 12) zer dioen: "En Sal. una *g* separa a menudo vocales que en otros dialectos peninsulares aparecen en contacto: su posición es generalmente la misma de *h* en los dialectos franceses. Según los datos de Azkue, *g* es frecuente en las mismas condiciones en el AN del Baztán". Pedro de Yrizarrek, bere *Morfología del verbo auxiliar labortano* izenburuko lanean (12-15 orr.), Baztan ibarraren mugakide Urdazubi eta Zugarramurdi herrietan 1993. urtean bildu genituen hitz esanguratsu batzuk argitara eman zituen: *ago*, *agul*, *egun*, *logi*, *oge*, *ugal*, *ugalde* eta *begarri*, adibidez, hauekin batera beste zenbait hitzek erakutsi bestelako aldaera batzuk aditzera eman baziren ere. Zaraitzura itzuliz, Samp(eban) delakoan *ogatzean* eta *agüerr*-geuk ere bilduta-ikus-ten dugu, gutxienez, eta Samp(dotr) deitu dugunean *agoan* eta *ogatctic*, Otsagiko dotrinan ere *loguian* [= Iohian] eta *veguinere* [= behin ere] moduko hitzak ageri direla. Diogun azkenik, bidenabar, J. M. Satrustegiren *Euskal testu zaharrak* izeneko lanean ere *veguin* horixe ageri dela, *iragun* batez gainera.

- 3-79 CK: arixkideák sàldu ztienán etxéak
(bitxi da subjektuaren *-ak* bukaera hori, zaraitzuerak pluraleko 3. pertsona ergatibo-egoeran dagoenean *-ek* hartzeko eskatzen duen araua zintzoki bete ohi baitu)
- PA: xan ztienán
- 3-80 a JU: zomáit emáztek amábi [haur] ta... izáte'ztízíe(n); oráí bi-dá ta bát eta... bátre
- 3-80 b PA: erósi zitxién
SK: aixkídeek eré xan zitxén
JU: eta... apárejoz, ta káretak íten... zíxién bérek, vamos, étsetan íten xíntxan
(*zixien* adizkia pluralizatu gabe emana; agian, zuketan emanikoa ikusirik, 'ztixien' itxaron zitekeen, Pablok eta Salvadorrek hori baino emaitza laburragoak eman bazituzten ere)

Taula 4

Aditz laguntzaile iragankorra (*nor-nork* - 'zuk -edo xuk-... ni'): 4-01 - 4-12, orainaldia; 4-13 - 4-24, iraganaldia.

| adizki -zenbakia | eredua eusk. batuan | Eaurta 1872 | Eaurta 1989-93 |
|---------------------|------------------------|----------------|-------------------|
| 4-01 a 4-01 b | nauzu id. (xuka) | nizu | nixu |
| 4-02 | nauk | nuk | nuk |
| 4-03 | naun | nun | nun |
| 4-04 | nau | nu | nu |
| 4-05 | tok. alok | nik | nik |
| 4-06 | nok. alok | nin | nin |
| 4-07 a 4-07 b | zuk. alok xuk. alok | nizu | nixu |
| 4-08 | nauzue | nizie | nizie |
| 4-09 | naute | nie | nie |
| 4-10 | tok. alok | nie | niek |
| 4-11 | nok. alok | nine | nien, nine(n) |
| 4-12 a 4-12 b | zuk. alok xuk. alok | nizie | nixe |

| adizki -zenbakia | eredua eusk. batuan | Eaurta 1872 | Eaurta 1989-93 |
|---------------------|------------------------|----------------|-------------------|
| 4-13 a 4-13 b | ninduzun id. (xuka) | nintzazun | ni(n)tzaxun |
| 4-14 | ninduan | nintzakan | ni(n)tzakan |
| 4-15 | nindunan | nintzanan | ni(n)tzanan |
| 4-16 | ninduen | nintzan | ni(n)tzan |
| 4-17 | tok. alok | nintzakan | ni(n)tzakan |
| 4-18 | nok. alok | nintzanan | nintzanan |
| 4-19 a 4-19 b | zuk. alok xuk. alok | nintzazun | ni(n)tzaxun |
| 4-20 | ninduzuen | nintzazien | ni(n)tzazien |
| 4-21 | ninduguen | nintzayen | ni(n)tzayen |
| 4-22 | tok. alok | nintzayekan | ni(n)tzayekan |
| 4-23 | nok. alok | nintzayenan | nintzayenan |
| 4-24 a 4-24 b | zuk. alok xuk. alok | nintzazien | ni(n)tzaxien |

adizki-zk.

- 4-01 b SK: xúk eré ikúsi níxu
(Espartzan ere gauza bera, *xúk ermán nixú dútoan* gisako adibidea bildu baitugu -eta ez *nuxu-*, 'hark ni' kasuko xukako alokutiboan bezalaxe⁶⁰)
- 4-02 CK: góizión ikúsi núk ni
(*goizion* hori 'goiz honetan' da)
- CK: ikúsi nuká?
- 4-03 CK: góizión ikúsi nún elízan
- 4-04 SK: apézak erráten dú ikúsi nuéla elízan
(Espartzan ere 'nu': *ermán nu*)

⁶⁰ Samperrek, baina, Bonaparteren informatzaile gisa -baldin bera izan bazen- *nizu* hori eman zuen arren, ebanjelioaren itzulpenean honela idatzi zuen: *Cerén gatic deitzenuzu ona?* (19-17) edota *uca-trennuzula irur aldiz* (26-34), eta Satrustegiren *Euskal testu zaharrak* delakoan ere *nuzu* dugu: *eznuzua ecusten ni afligituric eta miseriac beteric (...)* gisako galdera baten testuinguruan (162), adibidez.

- 4-05 CK: áitak eré... ikúsi ník elízan
- 4-06 CK: áitak eré ikúsi nín
- 4-07 b SK: apézak ikúsi nixú karríkan
- 4-08 CK: zuék eré ikúsi nizié
(Espartzan ere 'nizie': *ermán nizie*⁶¹)
- 4-09 SK: erráten dié aixkídeek ikúsi niéla plázan
(Espartzan ere 'nie': *ermán nie*)
- 4-10 CK: aríxkidék eré ikúsi níek
- 4-11 CK: aríxkidek eré ikúsi nién
(azken bi adibideotako adizkia ematean Carmelok azentuera desberdina erabili zuen)
- PA: ikúsi nién
(Pablok, hasieran, *nitíne* eman zuen)
- JU: ikúsi niné adiskídiek, ikúsi ninén
- 4-12 b SK: ázkaziék ikúsi níxe karríkan
(*azkazi* hitzaren lehenengo sílaba, inoiz, *az-* aditu uste izan dugu; *-as* gehienetan, baina)
- 4-13 a SK: zuk érman nintzázun Irúñara
- CK: zúk ikúsi nitzazún
- 4-13 b PA: ermán nintzaxún
- SK: ikúsi nitzáxun plázan
(iraganaldi honetan ere 'xuk ni' eta 'hark ni' –xukako alokutiboa, 4-19-b zk.– kasuetako emaitzak bat bera dira, adizkien hasierako *nin-* eta *ni-*ren arteko lehia nabaria alde batera utzirik)
- 4-14 PA: ermán nintzakán
- CK: xín itzalarík érden nitzakán dóstan
- CK: érman nitzakán kótxean, áutoan
- 4-15 PA: ermán nintzanán
- CK: érman nitzanán kótxean
(4-14 eta 4-15 zk. etako hikako emaitzok, orobat, 4-17 eta 4-18 direlakoetan ditugun hikako adizki alokutiboekin bateratsu ageri zaizkigu; bateratze-joera hauek, 'ni' kasuan bezalaxe, 'gu' delakoan ere gauzatu ohi dira, baina honek ez du inor zertan harritu, XIX. mendeko datuek, jada, gauza bera erakusten zutenez)
- 4-16 CK: Xebérek èrman nitzán kótxiarekín⁶²
- CK: kárek operátu nitzan
- PA: ikúsi nintzán apézak
- PA: erran dabát ápezak ikùsi nintzála átzo
- SK: ... átzo ikúsi nitzála elízan
- 4-17 PA: apézak atzó ikúsi nintzákan elízan
- CK: áitak eré... érman nitzakán

⁶¹ Samp(eban)ek *nucie* erabili zuen kasu honetarako: *Eguian erratendauciet, zuec zoinec seguitubainucie...* (19-28).

⁶² Hona zer dioten, besteak beste, kasu honekin eta antzeko beste batzuekin zerikusia duen Bonaparteren ohar batek (*Le verbe basque en tableaux - Observations, XIX*): 'Dans ce curieux sous-dialecte, *nintzan, intzan, zintzan, gintzan, zintzayen* signifient en même temps: *j'étais* eta *il m'avait, tu étais, il t'avait* et *tu les avais, nous étions, il nous avait* eta *nous les avions, vous étiez, il vous avait* et *vous les aviez*. La confusion du transitif avec l'intransitif peut avoir lieu, à dire vrai, dans tous les dialectes sous l'influence de l'allocution, mais ce n'est qu'en salazarais que l'on peut trouver des terminatifs indéfinis appartenant en même temps aux deux voix (...).

- 4-18 CK: áitak eré... érman nintzanán, ni
(Carmelok, maiz, arrebari zuzentzen ari zitzaion itxura egitean, *-n* bat tartekatu ohi zion adizkiari, anaiari zuzentzerakoan egiten ez zuena)
PA: ikúsi nintzánan elízan
- 4-19 b PA: ikúsi nintzaxún
JU: áita, átzo, apézak, ikúsi nintzáxun plázan
SK: ikúsi nitzáxun
- 4-20 PA: zék eré ikúsi nintzázien⁶³
CK: zuék eré... érman nitzazién
(azken bi adibideotan izenorde beraren bi aldaerak ditugu. Eaurtako gure materialetan, dena den, *zek* maizago aurkitzen dugu *zuek* baino)
- 4-21 PA ikúsi nintzaén
CK: ni, operátu ni(n)tzaén, apèndizitútik, Frántzian, ospitále bátèan, deitzén zén Ixpúra; ta kán operátu nintzaén apéndizitútik
(*apéndizitútik* hitz errepikatu horren bukaeretan, bietan, *titik* eta *tutik*-en arteko ahoskera dugu)
- 4-22 CK: oítabí úrte... nituén, operátu nintzaélarik
PA: ikúsi nintzáekán
CK: arixkídiak eré...[‘adiskideek’, alegia] érman nitzáekán
(bitxi da *arixkídiak* hori, ergatiboak, pluraleko hirugarren pertsonan dagoenean, *-ek* hartzen baitu zintzoki zaraitzueraz)
- 4-23 PA: ikúsi nintzaénan
- 4-24 b PA: ikúsi nintzaxién
SK: ikúsi ni(n)tzáxien
SK: ikúsi nitzáéxun
(azken era hau eman zuen aurrenik Salvadorrek, baina Pablok emaniko erantzuna kontuan hartuz eta XIX. mendean ere, zuketan, *nintzazien* bildu zenez, bigarren lekuan utzi dugu; ikus, halaber, 4-48-b zk.ko erantzunei buruzko iruzkina)

Taula 4 b

Aditz laguntzaile iragankorra (*nor-nork* - ‘zuk –edo xuk–... ni’): 4-01 - 4-12, orainaldia; 4-13 - 4-24, iraganaldia.

| adizki -zenbakia | eredua eusk. batuan | Eaurta 1872 | Eaurta 1989-93 |
|---------------------|------------------------|----------------|-------------------|
| 4-25 a | gaituzu | gitzu | |
| 4-25 b | id. (xuka) | | gitxu |
| 4-26 | gaituk | gituk | gituk |
| 4-27 | gaitun | gitun | gitun |
| 4-28 | gaitu | gitu | gitu |
| 4-29 | tok. alok | gitik | gitik |
| 4-30 | nok. alok | gitin | gitin |
| 4-31 a | zuk. alok | gitzu | |
| 4-31 b | xuk. alok | | gitxu |
| 4-32 | gaituzue | gitzie | gitzie |
| 4-33 | gaituzte | gitie | gitie |
| 4-34 | tok. alok | gitie | gitiek |
| 4-35 | nok. alok | gitine | gitien |
| 4-36 a | zuk. alok | gitzie | |
| 4-36 b | xuk. alok | | gitx(i)e |

| adizki -zenbakia | eredua eusk. batuan | Eaurta 1872 | Eaurta 1989-93 |
|---------------------|------------------------|----------------|-------------------|
| 4-37 a | gintuzun | gintzazun | |
| 4-37 b | id. (xuka) | | gintzaxun |
| 4-38 | gintuan | gintzakan | gintzakan |
| 4-39 | gintunan | gintzanan | gintzanan |
| 4-40 | gintuen | gintzan | gintzan |
| 4-41 | tok. alok | gintzakan | gintzakan |
| 4-42 | nok. alok | gintzanan | gintzanan |
| 4-43 a | zuk. alok | gintzazun | |
| 4-43 b | xuk. alok | | gintzaxun |
| 4-44 | gintuzuen | gintzazien | gintzazien |
| 4-45 | gintuzten | gintzayen | gintzaen |
| 4-46 | tok. alok | gintzavekan | gintzaekán |
| 4-47 | nok. alok | gintzayenan | gintzaenan |
| 4-48 a | zuk. alok | gintzazien | |
| 4-48 b | xuk. alok | | gintzax(i)en |

⁶³ Samp(eban)ek, kasu honetarako, *nintzien* ezohiko adizkia erabili zuen: *egunoro niangozun eseriric zuen artean eracusten temploan, eta beinere eznintzien preso eguin*, ‘cada día estaba sentado entre vosotros enseñándoos en el templo y nunca me prendisteis’ (26-55). Itzulpen-zati honetan ageri den *niangozun* era alokutiboaren erabilera, bestalde, oso arraroa eta are desegokia iruditzen zaigu, esaldiaren hartzailea talde bat dela kontuan izanik.

adizki-zk.

adibideak

- 4-25 b SK: xúk ikúsi gitxú bíok
(emaitza hau eta 'hark gu' kasukoa –xukako alokutiboa, 4-31-b zk.– bat bera dugu)
- 4-26 CK: ík erági gitúk egun
- 4-27 CK: ík erági gitún orái kótxean
- 4-28 SK: gízon kárek ikúsi gítu
JK: oáige(r)o ìten badúk, géro, kán nóla... rezíbituen gítuen?
(*rezíbituen* hori 'errezibituko' da, jakina, partizipioei erantsi ohi zaien geroaldi-marka, gehienetan, era horretan gauzatzen ez bada ere)
- 4-29 CK: aíták eré erági gitík
CK: orái berían erági gitík apézak
- 4-30 CK: aíták eré erági gitín
- 4-31 b SK: apézak eré ikúsi gítxu
- 4-32 CK: zuék eré erági gitzié orái berían
- 4-33 SK: gízon kaék eré ikúsi gítie (adizkia laguntzaz emana)
SK: áskaziék erráten dié ikúsi gitiéla
- 4-34 CK: erági gitiék
PA: ápezek ikúsi gitiék elízan
- 4-35 CK: arískideák eré ['adiskideek', alegia] erági gitién
PA: ikúsi gitíne
- 4-36 b SK: ikúsi gítxe
PA: ikúsi gítxe
(*gítxie* izan liteke agian, eta hobeki legoke gainera, *gítxe* aditu uste badugu ere)
- 4-37 b SK: zúk átzo érman gintzáxun bíok Irúñara (adizkia laguntzaz emana)
(hots, Salvadorrek, beste behin, *zúk* batekin abiatu arren xukako aditza eman zuen)
PA: xúk atzó ermán gintzáxun aútoan
(iraganaldi honetan ere 'xuk gu' eta 'hark gu' –xukako alokutiboa, 4-43-b zk.– kasuetako emaitzak bat bera dira)
- 4-38 CK: ík eré érman gintzakán kótxean
- 4-39 SK: ík èrman gintzanán Irúñara
(4-38 eta 4-39 zenbakietako hikako emaitza hauek, orobat, 4-41 eta 4-42 direlakoetan ditugun hikako adizki alokutiboekin bateratsu ageri zaizkigu, 4-15 zk.ko adibideei egin iruzkinean aipatu bezala)
- 4-40 PA: ápezak atzó ikúsi gintzán elízan
SK: apézak [dio] átzo ikúsi gintzála
(Salvadorrek, honez gainera –hau baita ohikoena– *gítuen* eman zuen: *abuélók eré érman gítuen*, orainalditik ekarria, antza)
- 4-41 CK: áíták eré érman gintzakán
PA: ikúsi gintzakán
- 4-42 PA: ikúsi gintzanán
- 4-43 b SK: érman gintzáxun
PA: ermán gintzáxun apézak
- 4-44 CK: zuék eré erági gi(n)tzazién
PA: zek eré ikúsi gintzázien
- 4-45 PA: káek eré ikúsi gintzáien
SK: erráten dié anáék átzo èrman gintzaéla Irúñara

- 4-46 CK: arixkídek eré érman gintzaékan
PA: ikúsi gintzaekán
- 4-47 PA: ikúsi gintzaenán
- 4-48 b SK: érman gintzáx(i)en
PA: ermán gintzaxén
SK: érman gintzaéxun
(Salvadorrek eman bi adibideetatik lehenengoak XIX. mendean bildu zenarekin bat egiten du –*gintzazien*, zuketan–, Pablok emanikorekin bat etortzeaz gainera; bigarrenak, Javierak emanarekin)
- JU: ikúsi gintzaexún adiskídiek
(azken bi adibideetako –*xun* bukaeradun adizkia, tauletan islatu ez duguna, –*xien* gisakoa bezain baliagarria izan daiteke, geure ustean)

Taula 5 a

Aditz laguntzaile iragankorra (*nor-nork* - 'nik... zu –edo xu–'): 5-01 - 5-12, orainaldia; 5-13 - 5-24, iraganaldia.

| adizki -zenbakia | eredua eusk. batuan | Eaurta 1872 | Eaurta 1989-93 |
|---------------------|------------------------|----------------|-------------------|
| 5-01 a 5-01 b | zaitut id. (xuka) | ztut | xtut |
| 5-02 | haut | ut | yut, ut |
| 5-03 | haut | ut | yut |
| 5-04 a 5-04 b | zaitu id. (xuka) | ztu | xtu |
| 5-05 | hau | u | yu, u |
| 5-06 | hau | u | yu |
| 5-07 a 5-07 b | zaitugu id. (xuka) | ztugu | xtugu |
| 5-08 | haugu | ugu | yugu, ugu |
| 5-09 | haugu | ugu | yugu |
| 5-10 a 5-10 b | zaituzte id. (xuka) | zte | xtie |
| 5-11 | haute | ie | ye, ie |
| 5-12 | haute | ie | ye |

| adizki -zenbakia | eredua eusk. batuan | Eaurta 1872 | Eaurta 1989-93 |
|---------------------|-------------------------|----------------|---------------------|
| 5-13 a 5-13 b | zintudan id. (xuka) | zintzatan | xintzatan |
| 5-14 | hindudan | intzatan | intzatan, itzatan |
| 5-15 | hindudan | intzatan | intzatan |
| 5-16 a 5-16 b | zintuen | zintzan | xintxan |
| 5-17 | hintuen | intzan | intzan, itzan |
| 5-18 | hintuen | intzan | intzan, (y)itzan |
| 5-19 a 5-19 b | zintugun id. (xuka) | zintzagun | xintzagun |
| 5-20 | hindugun | intzagun | intzagun, itzagun |
| 5-21 | hindugun | intzagun | intzagun, yintzagun |
| 5-22 a 5-22 b | zintuzten id. (xuka) | zintzayen | xintzaen |
| 5-23 | hintuzten | intzayen | intzaen, itzaen |
| 5-24 | hintuzten | intzayen | intzaen, yintzaen |

adizki-zk.

5-01 b PA: ikúsi xtút

(adizki honetan, bai-eta XIX. mendean bildu honen zukako aldaeran, laburbilketa nabaria dugu; izan ere, gure egunotan ekialdeko behe-nafarrera mintzo den Garazi aldean, adibidez –Zaraitzutik hurbil kokatu eremu bat aipatzeagatik– laburbildu gabeko erak ditugu: *xitut*, *xitu*, *xitugu* eta *xituzte*⁶⁴ –xuketan emanez gero, noski–. Era hauexek Aezkoako Abaurregainean ere, 1990ean, Secundino Iriarte eta Sabina Merino senar-emaztearen ahotik bildu genituen, zukako adizkien xumegarri, gauza jakina baita ibar horretan ez zukako ez xukako alokutiborik erabiltzen ez dena; erronkarietaz, ordea, laburbilketa-kontuetan zaraitzueratik hurbilago, era laburtuak bildu ziren XIX. mendean Bidankozen: *ztud*, *ztu*, *ztugu* eta *ztei*, Iزابako eta Uztarrozeko XX. mendeko datuek ere, bilduak izan diren neurrian, emaitza berberak eskaintzen dituztela⁶⁵)

JU: orái duéla ratóxko bát ikúsi xtút plázan⁶⁶

⁶⁴ Ikus, honetarako, Pedro de Yrizarren *Morfología del verbo auxiliar bajo navarro oriental (i)* lana.

⁶⁵ Abaurregaineko emaitzok Pedro de Yrizarren *Morfología del verbo auxiliar bajo navarro occidental* izenburuko lanean (548 or.) ikus daitezke. Bidankozekoak *Études sur les trois dialectes basques...* deritzenean, eta Iزابakoak zein Uztarrozekoak Yrizarren *Morfología del verbo auxiliar roncalés* deitutakoan.

⁶⁶ Samp(dotr) delakoan, laburbildu gabeko era batzuk ditugu: *onestenbaitcitut* (52) eta *Adoratencitugu* (10), adibidez. Igariko dotrinan orobat: *honestencitut* (57). Eta Itzallekoan *ceren citudan onesten*

- SK: ník ikúsi txút elízan
(orainaldia dela eta, Pablok eta Javierak emaniko *xtut*, *xtu...* eta gisako era laburtuak, Espartzan ere bildu ditugunekin eta are XIX. mendean Eaurtan jaso zirenekin bat datozenak –*xtut*, *ztu...* zuketan– ez dira uztartzen Salvadorrek emanikoeekin, honek *xt-* hasiera horiek *tx-* bihurturik eman baitzituen. Azken erantzun hauek aurrean genituela Pablori galdetu eta, honek ‘*xtut* beti’ erantzun zuen)
- 5-02 CK: ník ikúsi út karríkan⁶⁷
PA: ník ikúsi yút íi karríkan
(hots, itxuraz ‘hi’ beharrean ‘hiri’ dugu hemen, esaldia ongi bildu baldin bagenuen behintzat; hala izatekotan izenordea beharrik gabeko datibo-kasuan genuke)
- 5-03 CK: erági yút kótxean
(Carmelok bereizten zituen tokako eta nokako erak, azken honekiko adizkiei, aurretik, *y* bat erantsiz. Pablok, aldiz, orainaldiko hikako adizki hauek guztiak hasierako *y*-ez eman zituen, iraganaldikoak *y*-rik gabe emanik ere)
- PA: ník ikúsi yút
- 5-04 b PA: ikúsi xtu
JU: ikúsi xtu xú
SK: áitak eré ikúsi txú
- 5-05 CK: áitak eré ikúsi ú i
PA: ikúsi yu
- 5-06 CK: áitak eré ikúsi yú
PA: ikúsi yu
- 5-07 b PA: ikúsi xtúgu
JU: ikúsi xtúgu
(aurrenik, halere, *ikúsi xugú* era desegokia eman zuen Javierak)
- SK: gúk eré ikúsi txúgu
- 5-08 CK: gúk eré ikúsi ugú i
PA: ikúsi yugú
- 5-09 CK: gúk eré ikúsi yugú
PA: ikúsi yugú
- 5-10 b PA: ikúsi xtié elízan
JU: ikúsi xtié xú
(kasu honetan ere *ikúsi xié* era desegokia eman zuen, aurrenik, Javierak)
- SK: anáek eré ikúsi txé
- 5-11 CK: aríxkidék eré ikúsi ié karríkan
PA: ikúsi yé
- 5-12 CK: aríxkidék eré ikúsi y(i)é
PA: ikúsi yé
- 5-13 b SK: átzo ikúsi xintxatán Ótsain

gauza gucien gañetic irakur daiteke, non adizkia osorik ageri den. Logiko samarra da, gure ustez, eskuz idatzi dokumentuetan euskara mintzatuari hain maiztasun handiz nabarmentzen diren laburbilketak ez islatzea, jadanik ohar hauetara ekarri hainbat adibidek frogatu dutenez. Dena den, hauek baino askoz adibide gehiago ikusi dugu.

⁶⁷ Samp(dotr) delako eskuizkribuan *bateatcenut* (35) irakur daitekeen arren, Igariko dotrinan *nic batiacenyut* bat ikusten dugu (65), *y-* protetikoduna.

- PA: ikúsi xintxatán
(XIX. mendean, zuketan, *zintzatan* bildu zen, nondik, itxuraz, zuketan *xintzatan* beharko genukeen –eta ez *xintxatan* hau–, ez baitzai-
gu iruditzen, oker egon baldin bagaitezke ere, zukako *tz* xukako *tx*
bihurtzeko Bonapartek eginiko oharpena adizkiaren barne-hun edo
nukleoa ukitu ahal izateko neurri gehiegizkoan hartu beharko litza-
tekeenik. Espartzan, gainera, *xintzatan* bildurik gaude, *xintxatan*-
ekin batera bada ere, adizkiaren hasiera, beti ere, *xin-* dugula)
- 5-14 CK: atzó ikúsi itzatán elízan
PA: ikúsi intzatán
- 5-15 CK: atzó ikúsi intzatán
(iraganaldiko adizkietan, inoiz aditzera eman legez, Carmelok be-
reizkuntza bat egiteko joera erakutsi zuen, nokako gehienetan *-n-*
bat tartekatuz)
- 5-16 b PA: ikúsi intzatán
SK: apézak eré ikúsi xíntxan
(esaldi honetara iristean, 4-16 zk.ko lehenengo adibideari egin dio-
gun iruzkina oroitarazten dugu)
- JU: ikúsi xíntxan xú
JU: ta... léneko aldián, egòrri xintxanëán, eniánkoxún ongi
(Espartzan, gure egunotan ere, *xintzan* eta *xintxan*, biak bildurik
gaude; ‘egon’ aditzetiko *eniankoxun* era trinkoa dela eta, bestalde,
antzeko beste adibide bat dugu Javierak berak toketan emana: *atzó*
*niängókan... oiánian*⁶⁸)
- 5-17 CK: anáiak eré ikúsi itzán
PA: ikúsi intzán
- 5-18 CK: anáiak eré ikúsi itzán, yitzán
PA: ikúsi íntzan
(Pabloren azken bi adibideotan azentuera desberdina ikusten dugu
eta gauza bera esan daiteke 5-20 eta 5-21 zk.etako galderei eman
erantzunetaz)
- 5-19 b SK: gúk eré ikúsi xintxágun karríkan (adizkia laguntzaz emana)
PA: ikúsi xintxágun plázan
JU: ikúsi ginixún
(era desegokia eman zuen oraingoan Javierak; Espartzan *xintzagun*
eta *xintxagun*)
- 5-20 CK: gúk eré ikúsi itzagún
PA: ikúsi intzagún
- 5-21 CK: gúk eré ikúsi intzagún, yintzagún
PA: ikúsi intzágun
- 5-22 b SK: anáek eré ikúsi xi(n)txaén
PA: ikúsi xintxaén
JU ikúsi xintxaén xú
(Espartzan *xintxaen* eta *xintxaen*)
- 5-23 CK: aríxkidék eré ikúsi itzaén
PA: ikúsi intzáen
- 5-24 CK: aríxkidék eré ikúsi intzaén, yintzaén

⁶⁸ *niankoxun* horrek erakusten duen tarteko leherkari gorra benetan bitxia da hor. Honi dagokio-
nez Samp(eban)ek, zuketan –Javierak hiketan eman beste adibidearekin adosturik–, honela idatzi
zuen: *egunoro niangozun eseriric zuen artean eracusten temploan* (26-55).

PA: ikúsi intzáen

(y- protetikoa erakusten duten hikako adizki ez alokutiboak ugari dira, hartaz gabeturik daudenekin batera agertzen badira ere. Hona adibideok, arestian ikusi 'nik hi' sailekoetz gainera: 3-26/27, *yuen*; 6-14/15, *yadan* –hau eta honen jarraikoak lanaren 3. zatian ageriko dira–; 6-38/39, *yaztan*; 7-14/15, *yaukien*; 7-38/39, *yauzkiem*; 10-26/27, *yakon*; 10-66/67, *yazkon*; 11-26/27, *yaben*; eta 11-66/67, *yazten*, inoiz hasierako *ya-* horien ordez *ia-* bildu baldin badugu ere. Bonaparte printzeak XIX. mendean bildu zituen era hauek, ordea, –edota hauekiko aldaerak– *y-z* gabeturik daude⁶⁹)

Taula 5 b

Aditz laguntzaile iragankorra (*nor-nork* - 'nik... zuek'): 5-25 - 5-28, orainaldia; 5-29 - 5-32, iraganaldia.

| adizki -zenbakia | eredua eusk. batuan | Eaurta 1872 | Eaurta 1989-93 |
|---------------------|------------------------|----------------|-------------------|
| 5-25 | zaituztet | ztiét | ztiét |
| 5-26 | zaituzte | ztié | ztié |
| 5-27 | zaituztegu | ztiégu | ztiégu |
| 5-28 | zaituztete | ztié | ztié |

| adizki -zenbakia | eredua eusk. batuan | Eaurta 1872 | Eaurta 1989-93 |
|---------------------|------------------------|----------------|-------------------|
| 5-29 | zintuztedan | zintzatayen | zintzaetan |
| 5-30 | zintuzten | zintzayen | zintzaen |
| 5-31 | zintuztegun | zintzaguyen | zintza(i)egun |
| 5-32 | zintuzteten | zintzayen | zintzaen |

adizki-zk.

5-25

CK: ikúsi ztiét karríkan⁷⁰

(orainaldiko era hauek guztiak ere laburbildurik ditugu zaraitzue-raz, argiro ikusten denez)

PA: zék ikúsi ztiét tabérnan

(Eaurtarekin muga egiten duen Aezkoako Abaurregaineko lehen aipatu bikoteari behin egindako norabide bereko galdera luzatu genion oraingoan Pablori: baldin, adibidez, xukako tratamendua eman ohi diezun lagun batzuk tabernan ikusi badituzu, 'ikusi xtiet tabernan' esan diezaiekezu, agian? eta hark 'ikúsi xtiét ez, général no...')

5-26

CK: áitak eré ikúsi ztié

PA: ikúsi ztié

5-27

CK: gúk eré ikúsi ztiégu (adizkia laguntzaz emana)

PA: ikúsi ztiégu

5-28

CK: arixkídek eré ikúsi ztié (adizkia laguntzaz emana)

PA: ikúsi ztié

(hots, ekialdeko behe-nafarreraren esparruko beste leku askotan bezala, 'hark zuek' eta 'haiek zuek' berdin ematen dute. Eaurtan, XIX. mendean, eta Espartzan, gure egunotan ere, horrela dugu)

adibideak

⁶⁹ René Lafon-ek Bonaparteren iturri horretatik edan bide zuen, antza, zera idatzi zuenean: "On en rencontre le préfixe personnel *y-* en salazarais que très rarement; jamais à l'initiale, mais seulement entre voyelles, dans des formes de suppositif à préfixe modal *ba-*: *bayu* 'si tu l'avais', *bayade* 'si tu me l'avais' (...). Par contre, 'si tu l'avais' (aux.) se dit *bayeza* en ronc., *bayez* en aezc. et en h.-nav.mér., mais *baeza* en salaz. (*Sur la place de l'aezcoan, du salazarais et du roncalais...* Iker-11, 722 or.). Haren estimazioa, baina, XX. mendearen bukaeran bildu eta orri hauetara ekarri ditugun adibideekin parekatuz gero bederen, ez zaigu egokia izan zenik iruditzen.

⁷⁰ Pluraleko bigarren pertsonak ez dute xukako tratamendua onartzen. Hots, baldin mintzo zaien lagunei, bakarka, era honetako tratamendua ematen bazaie ere, elkarrekin daudela eta haiei zuzentzen gatzazkiela ezin erabiliko ditugu, esaterako, **xier*–edo **xer*– *erre zaixie etsea*, **xiek xan duxie ogia*, **nik ikusi xtiet xiek*, **xiek erran dakoxie amari* edota **xiek erran dabexie aitatamer* gisako esamoldeak, *erre zaizie*, *xan duzie*, *ikusi ztiét ziek* –edo *zek*–, *erran dakozie* edota *erran dabezie* modukoak baizik.

- 5-29 PA: orái duéla... egún-montió bat ikúsi zintzaetán tabérnan
(XIX. mendean *zintzatayen*. Carmelok, baina, *nik érman zintzaiekán átzo* eman zuen, indefinitua baizik –horrela esan baldin badaiteke– onartzen ez duen era honetako adizki bati bestelako batzuei erantsi ohi zaien tokako ezaugarria erantsiz, bidezko ez dena. Pablok, ordea, guk proposatu ‘zintzataen’ bat ongi ikusten zuela zioen, hark ez bazerabilen ere)
- 5-30 CK: áitak eré érman zintzaén
PA: ikúsi zintzaén
- 5-31 PA: ikúsi zintzaégun
CK: gúk érman zintzaiegún átzo
- 5-32 CK: aríxkidék eré érman zintzaén
PA: ikúsi zintzaén, ikúsi zintzaén
(Pablok adizki hauek ematerakoan zalantzak erakutsi zituen, hone-lako bitxikeriak bota baitzitu aurrenik: [nik] *ermán ziztezuén Irúñara*, [hark] *ermán ziztén*, [guk] *ermán zintzaén* edo *ziztén*, eta [haiek] *érman ziztén*. Halaber, [nik] *orái iten dik áste bat ikúsi ztié-la tabérnan* –non adizkia, antza, orainalditik erakarria dagoen– eta [nik] *ikúsi zintzaén* moduko adibide pareta eman zuen)

(jarraitzekoa)

BIBLIOGRAFIA ETA BESTE

- ALZOLA GEREDIAGA, N., “Una carta de D. Pedro José Samper, Vicario de Jaurrieta, dirigida al Príncipe Luis Luciano Bonaparte”, *Príncipe de Viana*, año 19, núms. 72-73, Iruñea, 1958.
- ARANA, A., *Zaraitzuko Hiztegia*, Nafarroako Gobernu eta Hiria Liburuak, 2001.
- ARANZADI ZIENTZI ELKARTEA - ETNOLOGIA MINTEGIA: *Euskalerriko Atlas Etnolinguistikoa (EAEL)*, I eta II. Donostia, 1983 eta 1990, hurrenez hurren.
- ARTOLA, K., “Erronkariko uskararen azken hatsak... einore”. *FLV*, 25, 1977.
- , “Hegoaldeko goi-nafarreraren azentua dela-eta (hurbiltze-saiakera)”, *FLV*, 60, 1992.
- , “Olaizko euskal eskuizkribuak”. *FLV*, 88, 2001.
- , “Zaraitzuera aztertzeo ekarpen berriak. 1 - Eaurta (hasiera)”, *FLV*, 91, 2002.
- AZKUE, R. M. de, *Diccionario vasco-español-francés* (repr. facsímil), Edit. La Gran Enciclopedia Vasca, Bilbo, 1969.
- BONAPARTE, L. L., *Carte des sept provinces basques montrant la délimitation actuelle de l'euscara et sa division en dialectes, sous-dialectes eta variétés*, Londres, 1863.
- , *El salmo quincuagésimo, traducido al vascuence del valle de Salazar, de la versión castellana de don Felipe Scio, por don Pedro José Samper, abad de Jaurrieta*, Londres, 1867; “Itxaropena S.A.”k 1973an birrargitaratua.
- , *El salmo quincuagésimo, traducido al vascuence aezcoano, salacenco y roncalés de la versión castellana del Padre Felipe Scio, por don Martín Elizondo, de Aríbe, don Pedro José Samper, abad de Jaurrieta, y don Mariano Mendigacha, de Vidángoz*, Londres, 1869; “Itxaropena S.A.”k 1976an birrargitaratua.
- , *Le verbe basque en tableaux*, Londres, 1869.
- , *Études sur les trois dialectes basques des vallées d'Aezkoa, de Salazar et de Roncal, tels qu'ils sont parlés à Aríbe, à Jaurrieta eta à Vidángoz*, Londres, 1872.
- CAMINO LERTXUNDI, I., *Aezkoako euskararen azterketa dialektologikoa*, Nafarroako Gobernu, 1997.
- ECHAIDE IARTE, A. M., *El euskera en Navarra: Encuestas lingüísticas (1965-1967)*, Eusko Ikaskuntza, Donostia, 1989.
- ESTORNES LASA, J., “Zoilo'ren uzta. La cosecha de Zoilo”, *FLV*, 45, 1985.
- IRIBARREN, J. M., *Vocabulario navarro* (nueva edición preparada y ampliada por Ricardo Ollaquindia), Institución Príncipe de Viana, Iruñea, 1984.

- LAFON, R., "Sur la place de l'aezcoan, du salazarais et du roncalais dans la classification des dialectes basques", *Pirineos*, 1955; *Iker*, 11, Euskaltzaindia, 1999.
- LAN TALDEA, *Bonaparte ondareko eskuizkribuak - zaraitzera*. Deustuko Unibertsitatea (Deiker), Euskal Ikaskuntzen Institutua, Bilbo, 1997.
- MITXELENA, K., "Un vocabulario aezoano, salacenco y roncalés preparado por el príncipe Bonaparte", *Boletín de los Amigos del País*, Donostia, 1958.
- , "Notas fonológicas sobre el salacenco", *ASJU*, I, Donostia, 1967.
- , "Un catecismo salacenco", *FLV*, 39, 1982.
- RUBIO LOPEZ, J., *Guía de Navarra* (novena edición), 1963, La Acción Social, Iruñea, 1963.
- SATRUSTEGI, J. M., *Euskal testu zaharrak - Zaraitzu (1780)*, Euskaltzaindia, 1987.
- , "Zaraitzuko euskararen lekukoak", *Luis Villasanteri Omenaldia, Iker*, 6, Euskaltzaindia, 1992.
- YRIZAR, P. de, *Morfología del verbo auxiliar roncalés*, Euskaltzaindia, 1992.
- , *Morfología del verbo auxiliar alto navarro meridional*, Euskaltzaindia, 1992.
- , *Morfología del verbo auxiliar alto navarro septentrional (I-II)*, Euskaltzaindia, 1992.
- , *Morfología del verbo auxiliar labortano*, Euskaltzaindia, 1997.
- , *Morfología del verbo auxiliar bajo navarro occidental*, Euskaltzaindia, 1999.
- , *Morfología del verbo auxiliar bajo navarro oriental (I-II-III)*, Euskaltzaindia, 1999-2002.

ESKUIZKRIBUAK

ITZALLE (IZAL), 1727:

Doctrina Uscaras Dn Benito Gil escrituric ver governuarendaco. Yzallen Avenduaren amalaugarrenean, urte mila zazpitan eun eta ogei eta zazpitan. Bonaparte printzearen testamentariako eskuizkribua, Nafarroako Diputazioaren Artxibo Orokorrean.

IGARI (IGAL), ??:

Lengua euskara, nº 10 - Catecismo en bascuence, dialecto vulgar de Igal. Iruñeko Artxiboan aspaldi fotokopiatutako orrietan ez dugu bestelako erreferentziarik ikusten. Bonaparte printzearen testamentariako eskuizkribua, Nafarroako Diputazioaren Artxibo Orokorrean.

ORONTZE (ORONZ), 1857:

Lehenengo orrialdean zera irakur daiteke:

Abrégé de la Doctrine Chrétienne en le Dialecte Basque qu'ont parle dans le Val de Salazar Province de Navarre (Espagne), eta particulièrement dans le Village de Oronz du même Val, présentée en cadeau a Monséigneur le Prince Imperial de France Lucien Bonaparte, dans la Ville de Ochagavia. Le 6 Novembre de 1857.

Azkeneko orrialdean, berriz, honako eskaintza xumea ageri da: *A Fr. Miguel Garcia, Abad intº de Oronz*, eta, horren azpian, *Atanasio Urrutia*.

Bonaparte printzearen testamentariako eskuizkribua, Nafarroako Diputazioaren Artxibo Orokorrean.

OTSAGI (OCHAGAVIA), 1834:

Doctrina cristiana en bascuence, escrita en 1834 y añadida años anteriores con varias preguntas y respuestas necesarias y principalmente sobre la misa, confesion y comunión. Del Mro. de Ochagavia Juan Marco Juanco. Cristioen Doctrinaren declaracioa pregunta eta errespuestaequi. Bonaparte printzearen testamentariako eskuizkribua, Nafarroako Diputazioaren Artxibo Orokorrean.

EAURTA (JAURRIETA), 1866:

Catecismo doctrina cristianarna, Aita Gaspar de Astetec compondua, zoin corregitric eta añadienzequin publicacenbaita Exmo. eta Illmo. Ssaun Doctore Don Pedro Cirilo Uriz eta Labairu, Yruñaco Obispoaren ordenez bere obispadoen usutaco. Don Pedro José Samper eta Elizari Eaurtaco Apez Ssaunac bere errico uscarala izuliric bere feligresen usutaco - Eaurtan. 1866. Bonaparte printzearen testamentariako eskuizkribua, Nafarroako Diputazioaren Artxibo Orokorrean.

EAURTA (JAURRIETA), 1869:

Jesucristo gure Jaunaren Evangelio sandua Según San Mateo. Don Pedro José Samper, Eaurtaco apez Ssaunac, Aita Amaten erdaratic Eaurta bereco uscarala itzulia - 1869. Bonapar-

te printzearen testamentariako eskuizkribua, Nafarroako Diputazioaren Artxibo Orokorrean.

Hona, itzulpeneko, Samperrek erabili zuen testua:

“Nuevo Testamento - Traducido de la vulgata latina teniendo a la vista los textos originales, por el P. José Miguel Petisco, S. J., dispuesta y publicada por el Ilmo. Sr. D. Félix Torres Amat”.

Kontsultarako erabili dugun argitarapena, berriz, honako hau:

“5ª edición. Editorial Apostolado de la Prensa, S. A. Madrid, 1960”

LABURPENEA

Zaraitzuera aztartzeko ekarpen berriak izenburu orokorra eman nahi izan diogu honuz gero zenbait entregatan garatuz hasi garen lan honi. Honako hau, Eaurtako euskarari eskainia, horietako bigarrena da, ‘nor-nork’ saileko aditz laguntzaileak biltzeko berariaz prestatua, nahiz, bide batez, bestelako datu gehigarriak orobat ekarri diren. Lehenagoko aldi batean ere esan genuen moduan, nafar Pirinioaren hegoaldean kokatu Zaraitzu ibarreko euskal hizkeraren zenbait ezaugarri aztartzeari interesgarria iritzi diogu, 1975 urteaz geroztik adin handiko gizon eta emakume batzuegandik bildu ditugun datuak baliatuz eta era ustez egokian lerro hauetara ekarriz. Zaraitzuko euskara Louis-Lucien Bonaparte printze euskaltzaleak egindako mapa zoragarrian ekialdeko behe-nafarreraren esparruan kokaturik agertzen da, horretarako arrazoi nagusienetarik bat, antza, errespetuzko alokutibotasunaren erabilera izaki, ekialdeko euskalkien ezaugarri.

RESUMEN

Este trabajo, dedicado a exponer distintas características del euskara de Jaurrieta, es el segundo de una serie a la que hemos dado por título genérico *Zaraitzuera aztartzeko ekarpen berriak*, y en el que aportamos, expresamente, formas verbales bipersonales del tipo ‘nor-nork’ situadas en diferentes contextos que, a su vez, contienen otros datos de interés. Tal como dimos a entender anteriormente, nos ha parecido conveniente comentar algunas características del habla popular vasca del valle de Salazar, situado al sur del Pirineo, valiéndonos para ello de datos que hemos ido recogiendo a distintos informadores de edad ya avanzada a partir del año 1975 y que hemos trasladado aquí de forma, creemos, sencilla. El euskara de este valle fue incluido por el vascófilo príncipe Louis-Lucien Bonaparte, en su meritísimo mapa, dentro del dialecto bajonavarro oriental, siendo, al parecer, una de las razones de mayor peso para tal inclusión el empleo en dicho euskara de la alocución respetuosa, común a los dialectos orientales.

RÉSUMÉ

Ce travail, consacré à l'exposition de diverses caractéristiques de l'euskara de Jaurrieta, est le second d'une série à laquelle nous avons donné le titre générique *Zaraitzuera aztartzeko ekarpen berriak*, et où nous apportons, expressément, des formes verbales bi-personnelles du type ‘nor-nork’ situées dans différents contextes qui, à leur tour, contiennent d'autres données d'intérêt. Comme nous l'avons antérieurement laissé entendre, il nous a semblé opportun de commenter quelques caractéristiques du parler populaire basque de la vallée du Salazar, située au sud des Pyrénées, en nous servant pour cela, de données que nous avons recueillies de divers informateurs d'un âge avancé, à partir de l'année 1975 et que nous avons insérées ici, d'une forme que nous pensons simple. L'euskara de cette vallée fut inclus par le prince basophile Louis Lucien Bonaparte, dans son estimable carte, dans le dialecte de la Basse Navarre orientale, étant semble-t-il, une des raisons de plus grand poids pour

une telle inclusion, l'emploi dans ledit euskara de l'allocution respectueuse, commune aux dialectes orientaux.

ABSTRACT

This study, which highlights different features of the Basque language spoken in Jaurrieta, is the second in a series under the general title of *Zaraitzuera aztertzeko ekarpen berriak*. This instalment deals with verb forms of the type 'nor-nork' in different contexts, some of which also contain points of interest in their own right. As in the previous instalment, it is considered appropriate that some of features of the spoken forms of the Basque language used in the Valley of Salazar, situated to the south of the Pyrenees, be pointed out here. This overview is based on information collected since 1975 from a number of elderly residents, and which, it is hoped, is set out here in simple terms. The Basque language from this valley was included within the Eastern "Bajonavarro" (Lower Navarran) dialect by the scholar of Basque, Prince Louis-Lucien Bonaparte in his commendable map. One of the main reasons for such a decision was, it would appear, the use in this version of the language of the respectful speech common to Eastern dialects.